

DATORRENA

Gerla iragarleak jakin dezan hautu okerra egin duela **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

KOLONBIA, HILABETE PROTESTAN:

Errepresioaren hamaika aurpegiak bistaratzen ari dira **> 8**

2021eko maiatzaren 29a | XV. urtea • 724. zenbakia
0,50 euro

GAUR8


mila leiho zabalik
www.gaur8.info



DONOSTIA, BOLATOKIEN HIRIA

DONOSTIA BOLATOKIEN HIRIA IZAN DA. ATZERA BEGIRATUTA, JOKO HORREK TRADIZIOA ETA TIRADIZOA IZAN DU HIRIAN. ARRASTOARI SEGIKA, BOLATOKIEN HIRIA IZATEN SEGITZEKO LANEAN ARI DIRA ZALEAK. HERRERAN ERAKITZEN ARI DIREN BOLATOKI BERRIA KONTATUTA, BOST IZANGO DITU. **> 12**

Pascual MARIN | KUTXA FOTOTEKA



Agur eta ohore Yuan Longpingi,
milioika jende gosetetik libratu
zuen biologoari 04

George Floyd eta hil zuen
arrazakeria gogoan 07

Kolonbiako errepresioaren
hamaika aurpegiak 08

Bolatokien hiria berreskuratzen 12

Errugabea 17

Pantaila txikian: Seriezale bat
ulertzeko gida azkarra 18

Elkarrizketa: Paule Bilbao 22

Teila Fabrika, balio eraldatzaileak
dituzten proiektuen elkargunea 26

In fraganti: «Diavolo» solidarioa 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Maite Ubiria Beaumont:** Gerla
 iragarleak jakin dezan hautu
 okerra egin duela

10 **Saioa Aginako Lamarain:**
 Itxaropenak herentzian

11 **Iñaki Altuna:** Frantses Estatua
 ez da aldatu; Euskal Herria, bai

17 **Unai Gaztelumendi**

20 **Arantxa Urbe:** Bizitza helburu
 duten konpetentziak eta balioak

21 **Mirari Martiarena Iraola:**
 Hankartean

25 **Antton Izagirre:** Itzaina eta
 idiak

25 **Miren Azkarate Badiola:**
 Aukera eta aukeraondokoak

30 **Olatz Arbelaitz Gallego:** Gladys
 saria: esparru digitalean
 erreferente femeninoak sortzen



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Gerla iragarleak jakin dezan hautu okerra egin duela

Gaurko garai politiko eta jarduera sozialen adierazle da, hein batean, hizkuntza gutxituen inguruan frantses Estatuak piztu duen krisiari buruz ondoren egin duen kudeaketa. Segurtasunak landu beharrean, demokraziaren tresnak zabaltasunez baliatu beharrean, amildegira begirako eztabaidak sortzen dituzte etengabe agintariek, gizartean adostasun maila handia duten aferak gerlarako munizio gisa baliaturik. Hala gertatu da «Molac legearekin». Inork espero ez zuen gehiengo handi batekin onartua izan zen Asanblea Nazionalean. Egoera deseroso bati erantzuteko aukera bi zituen, finean, Emmanuel Macronek. Nahiz eta Gobernuak ez zuen begi onez ikusten legea, presidenteak aukera bazuen, bere buruari aitortzen dion altueratik, jasotako kolpea baliatzeko «denok garaile» posizioa indartzeko.

Bozketak oso emaitza argia utzi zuenez, Macronek are arrazoi gehiago zuen, frantziar presidentek hainbeste bilatzen duten transzendentzia historikoa zaintzearen besterik ez balitz ere, azken 70 urteetan gutxitutako hizkuntzak babesteko Frantziak aldarrikatutako lehenengo legea sinatzeko.

Alta, horren ordez jarrera endogamikoaren aldeko hautua egin zuen. Hau da, Jean-Michel Blanquer Hezkuntza ministroak gehiengo demokratikoa bihurtzeko asmatu zuen bidezidorrari onespina eman zion. Hala, Legebiltzarrak gehiengo zabalaz onartu zuen legea tiraderan sartu zuen denborak usteltze prozesua abiatu zezan. Bere legebiltzar taldeko hainbat piromano helegitea zirriboratu zezaten baldintzak sortu zituen, eta handik aurrera auzia zelai irekian laga zuen, botere arteko banaketaren errespetu formalak agintzen baitu presidenteak albo batera egitea. Behin eta berriro, ez soilik lege sustatzaileen ahotik baizik eta zuzenbide alorretatik zein aniztasunaren kudeaketa zailari buruz eskarmentu handia duen hezkuntza komu-

nitatetik ere, oharrak heldu ziren, Macronen babes isilarekin zabaldutako bideak ekar zitzakeen ondorio kaltegarriak buruz.

Alferrik. Macronen sokako legebiltzarkideek ezarritako helegitea aitzakiatzat harturik Kontseilu Konstituzionalak hartu zuen neurririk gabeko ebazpena ezagutu ondoren soilik hartu omen zioten neurria Pariseko bulegoetan egindako bidegabekeriari. Erabakiak hexagonoko eskualde guztietan hautsak harrotu zituen eta, hizkuntza gutxituen ohiko defendatzaileei tokiko erakunde gehienak lotu zitzaizkien. Hori gutxi ez eta, hauteskunde giroak katalizatzaile bezala jokatu zuen.

Macronek bazuen aukera hizkuntza gutxituen transmisioari ezinbesteko bermea emanez aniztasunaren ikuspegia hobesteko, baina Estatuko eremu ilunetatik xuxurlaturiko gomendioa aintzat hartuta ir-

Nekeza egiten zaio Estatuari hizkuntza gutxituak baliatzen dituzten hezkuntza sareek duten onespina zabalak gizartearen begirada aldarazi duela aintzat hartzea

tenbiderik gabeko bidea hartu zuen. Behin paretaren kontra iritsita, bere Facebookeko murruan mezua itsatsi zuen.

Hamarkadaz hamarkada jakobinismoaren erasoei aurre eginez murgiltze eredua garatu dutenentzat laudorio hitzak plazaratu zituen, baina ordurako zaila zen Macronek berak hizkuntza gutxituak eta hezkuntza sareak kolokan jartzeko estrategiari onespina eman ziola paretatik ezabatzea. Gerla iragarleak, bistan da, ez zuen inondik inora ongi neurtu noraino ukan zezakeen ahulenaren aurkako erasoak bere boterea kili-kolo jartzeko gaitasuna. Gerla asmoen aurrean amore emateko prest ez den jendearekin beteko dira gaur kaleak. •

AGUR ETA OHORE YUAN LONGPING

Landareen biologoak, «arroz hibridoaren aitak», milioika jende gosetetik libratu eta munduari jaten eman zion

 **TXINA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Txinak agur esan dio bere aitona kuttunari, Maoren garaian sufritu zuen gosete latzetik ateratzen lagundu zuen arroz hibridoaren sortzaileari. Milioika jenderen bizitzak salbatu zituen eta ehunka milioi gehiagori oinarritzko jana eman zien. Iraultza Berdearen aitzindariak mundua eraldatu du, elikadura urritasunetik elikadura segurtasunera hurbilduz.

Yuan Longping, **seguru eni**k munduan bizitza gehien salbatu dituen pertsona, 90 urterekin zendu berri da. Doluz da Txina, minez, bere aitona kuttunena joan delako, milioika txi-

natar hil zituen gosetea gainditzeko lagundu zuen zientzialari apartak agur esan duelako. Munduaren aurrerabidea lortzeko pertsona handia izan da, gutxi izango dira berak egingutako ekarria bezalakorik egin dutenak, eskuekin oratu daitekeena, ekarpen praktikoa.

Yuan Longping, txinatarren heroi nazionala eta aitona kuttuna, mundura benetako Iraultza Berdea ekarri zuen aitzindaria.
GAUR8

Langile fina izan zen, ameslaria, Txinan sona eta miresmen handikoa, zelebritate bat. Gaztetatik arroza maite zuen, arroz landareak zaintzen zituen, arroz soroetan egunak eta egunak pasatzen zituen bere kreatura maiteei behar zuten guztia ematen. Landareen zientzialaria izanik, ez zen irakaskuntza akademikora edo zientzia literaturara lotu, Yuan Longpingek landa eremuak maite zituen, Txinako bazter ezkutuenetan sortzen ziren arroz basatiak biltzen zituen, eta horrela zen zoriontsua.

Nekazaritzaren eta zientziaren aurrerabidearen aitzindaria izan zen, Txinako harrotasun nazionalaren sinboloa. Errendimendu handiko arroz



hibridoek sortzailea, Asiako, Afrikako eta Amerikako uztak biderkatuz, milioika, ehunka milioi jenderen bizitzak salbatu zituen, Txinan eta Indian bereziki.

Norman Bourlaug landareen zientzialariak gariarekin lortu zituen aurrerapenekin batera, Yuan Longpingek arrozarekin lortu zituenak izan dira Iraul-tza Berdea deritzona ekarri zu-tenak. Uztak handituz, mun-duko parte askotan gosea desagerrarazi zuten. Bourlaugi Nobel saria eman zioten 1970ean, baina esan daiteke Yuan Longpingek are ondorio emankorragoak utzi zituela, ze arroza gizateriaren erdiaren-tzat elikagai printzipala da, eta garia, heren batentzat.

hibridazioa munduratu

Errendimendu handiko arroza lortzea izan zuen obsesio, arroz produktiboagoak behar ziren eta Txinako leku ezku-tuetan aurkitu zituen barieta-te basatiek eman zioten behar zuen material genetiko. Ze-hazki, Hainango uhartean, trenbidearen ondoan. Han aurkitu zuen oso endogamiko-ak ziren zepa komertzialei transferitu ahal izateko baso-ko arrozaren material genetiko. Bere zientzia hipotesia baieztatuz, hibridazioa erraz egin zitekeela demostratu zuen, uz-taren produkzioan irabazi handiak lortzeko.

Orduz geroztik, Txinak lide-ratu du arrozaren hibridazioa-ren dantza globala. Landaketa teknika berdina erabiliz, Yuan Longpingen arroz hibri-datuarekin ekoizpena %30 handitzen zen –eta horrek ba-karrik, urtean 70 milioi jende gehiago elikatzea suposatu zuen–. Eta hibridazioaren tek-nika menderatuta zutenean, Asia osoan, Afrikan eta Ameri-



Longpingek arroza maite zuen, arroz soroetan eman zuen bizitzaren zati handiena eta aldaera berriak sortu zituen. GAUR8

kan barietate hibridatu be-riak sartzen lagundu zuen, mundu osoko agronomo eta nekazariei irakatsiz. Txinan bakarrik, Longpingek hibrida-tutako arrozarekin herrialdea-ren ekoizpen osoa bost aldiz handitu da azken 70 urteetan.

Arroz ekoizleak ziren he-rrialdeetan gosetea desagerra-razten lagundu eta bizitza as-

Yuan Longpingek Txinak bere patentea gorde eta arroz ekoizpena dominatzea baino nahiago izan zuen pilatu zituen jakintzak eta esperientziak munduarekin konpartitzea

Maoren Aurreranzko Jauzi Handiaren ildoak, nekazaritza kolektibizatu eta herrialde industrializatuak harrapatzeko apustu frenetikoak, gosete ikaragarria ekarri zuen

ko, pila-pila bat, salbatu zi-tuen. Patentea gorde eta arroz ekoizpenaren dominazioa ber-matzea baino nahiago izan zuen bere jakintza eta espe-rientzia munduarekin konpar-titzea. Indian, Madagaskarren, Filipinetan, Liberian, Nepalen, Brasilen, nonahi.

Aurreranzko Jauzi Handia

Mao Zedong-en agintaldian Txinak sufritu zuen gosetea-ren lekuko izan zen Yuan Longping. Horrek asko marka-tu zuen bere bizitza. Eta elika-gaien ekoizpena handitzeko teknikak asmatzera behartu zuen bere burua, hazi eta za-hartu ahala desira hori indar-tsuagoa egin zen, bere bizitza-ko bokazioa bihurtu arte.

Longping aitona maitagarria kultiboen genetikan espeziali-zatu zen, eta garai hartan, dizi-plina hori gatazka ideologiko-en esparrua zen, arriskutsua oso. Izan ere, bi eskola zeuden eta Mao lemaizainak eskola so-bietarraren alde egin zuen: ge-neak ingurumen baldintzak aldatuz, tenperatura kasuko, berritxuratu zitezkeela defen-datzen zuen, eta ondorengoek aldaketa horiek hartuko zituz-tela herentzian. Longpingek, baina, dogma sobietarra alde batera utzi eta ezkutuan Gre-gor Mendel eta genetikan ai-tzindari izan ziren beste zien-tzialari batzuk ikasi zituen.

1953. urtean graduatu zen eta landa eremuarekin zuen konpromisoari eutsi zion. Konpromiso horrek 1950. ha-markadaren bukaeran beste urgentzia bat hartu zuen: Ma-oren Aurreranzko Jauzi Han-diaren ildoarekin, nekazaritza kolektibizatze ahalegin fre-netikoak eta herrialde indus-trializatuak harrapatzeko apustu eroak, bereziki altzai-ruaren ekoizpena martxan jar-



tzeko apustu erraldoiak, Txina garai modernoan inoiz bizi izan duen gosete okerrenera kondenatu zutenean. Dozenaka milioi txinatar hil ziren.

Gosea zen orduan nagusi, gose latza, edozer jaten zuten, garoaren sustraiak, enbor azalak, are mineralak lortzeko buztin zuria ere bai. Jendea gosez akabatzen ikustean, Longpingen konpromisoa, jende arrunta gosez ez hiltzeko konpromisoa, erradikalizatu zen.

URRITASUNETIK SEGURITASUNERA

Arroz soroetako ikertzaile umila, Yuan Longping kamarada arrozaren ikerkuntzan jardun zen bere bizitza osoan. Bere sekretuak lau zutabe zituen: jakintza, izerdia, inspirazioa eta aukera. Eta jarrera bat, Louis Pasteurren hitzak gogo-

an beti: «Ikerkuntzaren arloan, zoriak izaera prestatuei baizik ez die mesede egiten».

Errendimendu handiko bere arrozekin, bere txikian, iraultza erraldoi bat etorri zen. Txina, adibidez, errotik eraldatu zuen: elikadura urritasunetik elikadura segurtasunera eraman zuen; hiru hamarkada aski izan zituen horretarako. Marabilla lortu zuen: munduko lurren %9an populazioaren %20ri jaten ematea, elikagaien kalitatea eta eskuragarritasuna handituz.

Arroz arraza berria helburu, bisio bat izan zuen gaztetan, Txinako basartoa bezain altuak ziren arroz landareekin amesten zuen, arrozburu bakoitza erratz baten tamainakoa zutenak, eta arroz ale bakoitza kakahuete baten

tamainakoa. Arroz kultiboen itzaletan jolasten eta ezkutatzen zela lagunekin. Bisioa misio eginda, egun, Txinako arroz ekoizpenaren %60 Yuan Longpingen arroz hibridatuekin egiten da.

1979an arroz hibridoaren bere teknika Ameriketako Estatu Batuetan sartu zen, Txina modernoaren historian jabe-

Bere arroz hibridatuen soroak zaintzen zituen beti, eta munduko beste agronomo eta nekazariekin partekatu zituen bere aurkikuntzak.
GAUR8

Bere lanak lau zutabe zituen: jakintza, izerdia, inspirazioa eta aukera. Eta jarrera bat, Louis Pasteur gogoan: «Ikerkuntzaren arloan, zoriak izaera prestatuei baizik ez die mesede egiten»

Txina arroz hibridoaren puntako teknologiaren jabe eta esportatzaile handiena da. Hazien kultiboa ez dela irabazi azkarreko industria bat badaki, are sarritan irabazirik gabekoa dela

tza intelektualeko eskubideen transferentziaren lehen kasua bilakatuz.

ARROZA, ARROZA BETI


Kantitatea ala kalitatea, zein lehenetsi? Herrialde garatuetan arrozaren kalitatea eta zaporea aurretik jartzen ziren garaietan, Longpingek ekoizpena handitu beharra ikusi zuen denetan garrantzitsuena: «Lehenik janari nahiko izan behar dugu, eta gero etorriko da ondo jatea». Gainera, berarentzat, errendimendu handi batek ez zuen definizioz kalitate txarra esan nahi.

Mundua gosetetik libratzen izugarri lagundu zuen, muturreko pobreziatik askatu zituen landa eremuko populazio osoak eta janari nahikoa izango zen etorkizun batean sartu gintuen guztiok. Eta, jakina, horrek janariaren kontrolaren gaineko mundu mailako gerra arriskuak gutxitzen asko lagundu du.

Bere teoriak eta hazi hibridoek Iraultza Berdea ekarri zuten mundura. Hainbat herrialdetarako ur gaziarekin hazitezkeen zepak asmatu zituen, kadmio gutxi zuten barietateak lortu zituen metal pisutsuek kutsatutako lurretan landatzeko aproposak. Egoera eta klima bakoitzerako, jende guztientzat, arroza!

Txina da egun arroz hibridoaren esportatzaile handiena, hazi hibridatuen gordailu eta puntako teknologia garatzaile nagusia. Badakite inbertitzaileek irabazi azkarrak nahi dituztela, baina baita hazien kultiboa ez dela irabazi azkarreko industria bat ere, are sarritan irabazirik gabekoa dela.

Yuan Longpingen agurra ez da bakarrik herri txinatarrentzat galera oso handia, gizateria osoarentzat izan da. Goian bego, ohore beti.



Kerem YUCEL / Ed JONES

IKUSMIRA

GEORGE FLOYD ETA HIL ZUEN ARRAZAKERIA GOGOAN

«Mundua aldatzea lortu genuen, baina ez da nahikoa», adierazi du Brandon Williamsek, George Floyden ilobak, bere osaba Poliziak hil zuenetik urtebete bete denean. Asteartean, beste senide batzuekin batera Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuan eta Etxe Zurian egon zen. «Gauzak norabide onean aldatzen ari dira, baina ezin gara horrekin gelditu soilik, harantzago joan behar dugu. Borrokatzen jarraitu behar dugu», nabarmendu du. Joe Biden presidentea eta Kamala Harris presidenteordea Floyd senideekin elkartu ziren. «Hilketa horrek 60ko hamarkadatik ikusten ez genituen protestak eragin zituen, mo-

bilizazio horiek arraza eta belaunaldi guztietako pertsonak batu zituzten zentzurik gabeko hilketa hauen kontra», esan zuen Bidenek, Ameriketako Estatu Batuetan oraindik ere arrazakeriak sustrai sendoak dituela aitortuz. Irudietan, Minneapolisen, Minnesotan, Floyden omenez egindako kontzertu bat eta Brooklynen, New Yorken, urteurrena dela-eta egindako manifestazioa.

Ainara Lertxundi

HILABETEKO PROTESTALDIA

Desagerpenak, exekuzio estrajudizialak, arrazoirik gabeko atxiloketak... errepresioaren hamaika aurpegiak Kolonbian

Apirilaren 28tik, protestak hasi ziren egunetik, maiatzaren 26ra bitarte, Temblores gobernu kanpoko erakundeak Grita plataformaren bidez 3.155 polizia-biolentzia egoera erregistratu ditu. Epe horretan, manifestazioen testuinguruan, 60 pertsona hil dituzte –43 hilketa Indar Publikoari leporatzen dizkiote eta beste 18 ikertzen ari da Temblores; non eta nola gertatu ziren, testuingurua, metodologia eta ustezko egilea–, 955ek biolentzia fisikoa pairatu dute, 46 lagunek begietan zauriak izan dituzte eta 1.388 atxiloketa arbitrario izan dira, Tembloresek jakinarazi duenez. Era berean, poliziaren edo militarren eskuetan sexu biolentzia pairatzeagatik 22 salaketa jaso ditu eta Poliziak suzko armekin 165 tiro gin dituela salatu du.

Eskubide urraketa horiek ikertzeko, maiatzaren 14an Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak Kolonbiara joan ahal izateko egin zuen bisita eskaera onartzea exijitu dio Ivan Duqueren Gobernu uribistari. Astelehenean bertan presidenteorde eta Atzerri ministroa den Martha Lucia Ramirezek esan zuen lehenengo denbora utzi behar zaiela Kolonbiako kontrol organoei salaketak ikertzeko eta beren lana egiteko, eta ondoren erabakiko dutela ea Batzordearen bisita beharrezkoa den ala ez.

Sare sozialetan, baina, Duque presidenteari gogorarazi zioten 2019. urtean Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren saioen irekieran, Barran-

quillan, Nazioarteko Zigor Gorteak Venezuelen gertatzen ari ziren ustezko krimenak ikertu behar zituela esan zuela, bere hitzetan, «egunero giza eskubideak zapaltzen dituen diktadura bihurtu baita eta Gorteak venezuelarren eskubideen defentsa bere gain hartu behar du inpunitateari amaiera emateko».

BATZORDE INTERAMERIKARRA

Atzerri ministroak adierazpen horiek egin eta hurrengo egunetan, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak bigarren komunikatu bat kaleratu zuen, maiatzaren 14koa baino askoz luzeagoa eta zorrotzagoa. Gobernu kolonbiarrari hainbat eskaera berresten dizkio, horien artean, herrialdera joateko baimena; protesta eskubidea bermatzea eta poliziaren edo militarren gehiegizko indarra saihesteko neurriak hartzea eta gertatu diren indarkeria kasuak ikertzea.

Estatuak Batzordeari igorritako txostenen arabera, apirilaren 28tik gutxienez 9.623 protesta egon dira 794 herri-tan. Batzordeak nabarmendu duenez, gutxienez 1.038 manifestaziotan hildakoak, desagertuak, zaurituak eta sexu erasoak egon dira Indar Publikoen aldetik –Batzordeak 87 jasotzen ditu–. Maiatzaren 12an nerabe batek ustez bere buruaz beste egin zuen Popayanen kaletik zihoala mugikorrarekin grabatzeagatik polizia batzuek atxilotu eta bortxatu egin zutela salatu ostean.

Espresuki Lucas Villas gaztearen heriotza –maiatzaren 5ean Pereiran zortzi tiro jaso zituen mobilizazio batean zegoela–; Sebastian Quinterore-

 **ATZERRIA /** Ainara Lertxundi

Kolonbian manifestazioak hasi zirenetik hilabete bete denean, Poliziaren bortxa eta eskubideen urraketak ikertzeko bisita egiteko eskaera egin dio Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak Gobernuari. Kezkagarritzat jo ditu zibil armatuen ekintzak eta desagertutako zenbait manifestari hilik azaldu izana.

na –maiatzaren 15ean hil zen Popayanen nahasmena eta zorabioa eragiteko granada baten kolpea jaso ostean–; eta Jhon Erik Larrahondorena –Calin hil zen hilaren 23an suzko arma batengatik– aipatzen ditu Batzordeak giza eskubideen urraketen adibide gisa.

Oso larritzat jotzen du 132 pertsonaren desagertpena.

«Kezkagarria da egunak pasatu ahala pertsona horiek desagertuta jarraitzea, are gehiago, batzuk hilda azaldu direla jakinda, Cristian Torres liderra kasu, hilaren 14an hilik aurkitu baitzuten Leivan, Nariñon».

Manifestazioen lehenengo lerroan egon izan diren zenbait gazteren gorpuak aurkitu dituzte egunotan. Caliko Siloe auzoko bi manifestari Palmirara doan errepidearen albo batean hilik aurkitu zituzten. Auto istripu batean hil zirela esan zuten agintariek hasieran, baina bertsio hori segituan gezurtatu zuten lagunek, baita Fiskaltzak berak ere.

Telesur kateari eginiko adierazpenetan, Carlos Sierra gaztearen lagun batek Estatuak hil egin zuela salatu zuen. «Positibo faltsu bezala aurkeztu dute. Carlosek, kalera atera ga-



Maiatzaren 23an, Kolonbiako errepresioa salatu zuten herrialde horrekin, Palestinarekin, Kurdistanekin eta Sahararekin elkartasunean Donostian eginiko manifestazioan. Andoni CANELLADA / FOKU

ren milaka gazteok bezala, ezin izan zituen ikasketak jarraitu baliabide faltagatik. Bu-kaera arte borrokatu zuen per-sona bat izan zen, Kolonbia hobeago batekin amesten zuen», adierazi zuen. Departamendua zeharkatzen duen Cauca ibaian beste gorpu batzuk aurkitu dituzte.

ZIBIL ARMATUEN ERASOAK

21N Talde Juridiko Humanitarioak, Justizia eta Duintasuna Korporazioak eta Justizia eta Bakea Batzorde Intereklesialak ohartarazi dutenez, maiatzaren 14an, Calitik 40 minutura dauden Guacari, Buga eta Yambo landa eremuetan hobi komunak egon daitezkeela jakinarazi zieten. Horietara Calin atxilotu eta senide nahiz lagunek desagertutzat eman dituzten gazteen gorpuak era-

Bogotako aireportuan bertan kanporatua izan ostean, Juan Graboís ekintzaile argentinarrak Gobernu kolonbiarra salatu eta ordezkaritzaren segurtasuna bermatzea exijitu du

21N Talde Juridiko Humanitarioak, Justizia eta Duintasuna Korporazioak eta Justizia eta Bakea Batzorde Intereklesialak ohartarazi dutenez, balizko hobi komun en informazioa jaso dute

maten ari diren susmoa zabaldu da azken asteetan. Hilketa estrajudizial horien zenbait lekuko osasun etxeetan aurkitu dituzte zaurituta eta erabat beldurtuta ikusi eta bizi izan zutenarengatik.

Testigantza horien arabera, poliziaren babesa omen duten eta armatuta dauden zibilak Caliko oso eskusiboa den Ciudad Jardin auzoko etxe bat erabiltzen ari dira «atxilotutako» gazteak eramateko, eta ondoren haien gorpuak kristalak polarizatuta dituzten kamionetan ateratzen dituzte.

Etxe mota horiek Kolonbian «casas de pique» izenarekin ezagutzen dira eta paramilitarrak eta gaizkile taldeak 2014an halakoak erabiltzen hasi ziren Buenaventuran (Caucako bailaran, Pazifikokoan) pertsonak torturatu, zatikatu eta desagerrarazteko.

Hobi komunak ote dauden berehala ikertzea eta Desagertutako Pertsonen Bilaketa Unitatearen esku-hartzea exijitu dute aipaturiko taldeek.

MANIFESTARIEN ESTIGMATIZAZIOA

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak kezagarritzat jo du halaber manifestariak eta bereziki talde etnikoak estigmatizatzea –presidenteak blokeoak egiten dituztenak «bandalo terroristak» direla esan du behin baino gehiagotan-. Adibide gisa, hilaren 9an,

Caliko sarreran, armatuta zeuden zibilak *minga* indigenaren kontra tiroka hasi zirela gogoratu du eta indigenen kontra zabaldutako mezuak nabarmendu ditu. «Zibilek errepre- sio ekintzetan esku hartzea eta manifestarien kontra tiro egitea bereziki larria da», ondorioztatu du. Horregatik guztia- gatik, Duqueri bisitaren garrantzia berretsi dio: «Giza eskubideen egoerari buruzko balorazio objektibo bat egiteko elementu guztiak izan behar ditugu eta horretarako be- harrezkotzat jotzen dugu Kolonbiara joatea», azaldu du.

EKINTZAILE BATEN KANPORAKETA

Asteartean, Bogotako airepor- tutik Juan Graboís ekintzaile argentinarra kanporatu zuten agintariek. Abokatua, uniber- tsitateko irakaslea eta Bazter- tutako Langileen Mugimendu- ko (MTEko) kideari Kolonbian sartzea debekatu zioten. Na- zioarteko behaketa eta elkarta- sun talde batekin zihoan, giza eskubideen urraketak ikertze- ko asmoz. «Dokumentazioa eta ekipajea atxiki dizkidate. Poliziaz inguratuta Limara do- an hegazkin batean sartu nau- te. Latinoamerikarako aldake- ta garaiak dira. Ez da erraza izango, baina esnatu gara. Agur Kolonbia, eutsi!», idatzi zuen bere Twitter kontuan Graboisek. 2019an Alberto Fer- nandez presidentearen alde

egin zuen hauteskunde kan- painan. Misioa osatzen duten gainontzeko 19 argentinarrak arazorik gabe sartu ziren.

Argentinako Atzerri minis- troak, Felipe Solak, Graboisen kanporaketa gaitzetsi zuen.

Kolonbiako Migrazio ardu- radunek pasaportea epez kan- po zuela eta Migrazioko begi- raleenganako errespetu falta argudiatu zuten sarbidea de- bekatzeko. «Kolonbiara sar- tzea behin eta berriz exijitu zuen, horretarako eskubidea zuela, gonbidatuta zegoela eta ibilbide luzeko pertsona bat dela esanez. Gure lankide bati zertan lagundu ez zuela eta bahiketa bat zela ere esan zuen. Atzerritar honen erres- petu falta nabaria izan zen, eta horrelako jarrerak eta presio- ak ez ditugu onartzen», esan zuen Migrazio bulegoak.

Graboisekin batera zihoan Maria Elena Navarrok erabaki horrekin Gobernuak behatzai- leen lana oztopatu besterik ez zuela nahi plazaratu zuen.

Behin Limara iritsita Grabo- sek berak Twitterren bidez za- baldu duen bideo batean, «nortasun agiria eta pasapor- tea epean» dituela nabarmen- du du; «gezurra da Gobernu kolonbiarrak esandakoa».

«Eskerrik asko, nirekin ardu- ratu zareten guztioi, elkartasu- na adierazteaz gain, Argenti- nako misioak jasan duen eraso hau salatzeagatik. Kolonbiako gazteak, kaleko herritarrak, pobreak askoz ere urraketa okerrago eta larriagoak paira- tzen ari dira. Gure ordezkari- tzak estatu krimenak ikertzea du helburu», esan du. Kolon- bian dauden bitartean, orde- zkarien segurtasun fisikoa ber- matzea eskatu du: «Ikusi dugu Gobernuak ez dituela ez kolonbiarren ez atzerritarren es- kubideak errespetatzen».





Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Itxaropenak herentzian

Itxaropenak sortzea eta mantentzea gutako bakoitzaren parte da; denok ditugu lortu nahi ditugun asmoei buruzko ideiak eta, aldi berean, gertatuko denari buruzko itxaropenak. Bizi-

tzak nahi dugun bezala funtzionatzen duela eta besteek merezi dugun bezala tratatu behar gaituztela pentsatuz bizi gara. Horregatik, hori gertatzen ez denean, frustratu, haserretu eta tristatu egiten gara. Neurri batean, ezin dugu zerbaiti edo norbaiti buruzko itxaropenak izatea saihestu. Horrela, itxaropenik gabe bizitzeak eta, aldi berean, itxaropen ez oso errealistak izateak ez digute libre izaten uzten.

Bikotekidearekiko (asebetetzen ez diren) itxaropenak dira ohikoenetakoak. Behin betikoa dela esaten diogu geure buruari, oraingoan baietz, eta, azkenean, egonkortasun afektibo hori lortuko dugula, proiektu berean norbaitekin batera hazteko. Harik eta, pixkanaka-pixkanaka, etsipenaren hotza sortzen den arte. Izan ere, batzuetan etsipenak bidea egiten du, gure oinen azpian pitzadura bat karraskatuz bezala. Egunerokoan bizi duguna ez da espero genuena. Maitasuna hor dago, oraindik badago, baina ez zaigu nahikoa iruditzen.

Arazoa larriagotu egiten da, beste pertsonari ez diogulako gure beharrak zeintzuk diren esaten. Zoritzarrez, ohikoena norbaitekin irteten hastea da, eta gurekin zehazki nola jokatu beharko lukeen asmatzea espero izatea. Gero, beste pertsonak ezinbestean gure arau ez-esplizituren bat hausten duenean, haserretu eta kexatu egiten gara. Dena sinesmen batekin hasten da, irakatsi digutenaren, ikasi dugunaren eta izan beharko lukeenaren arabera elikatzen dugun sinesmenarekin. Gure buruan erlazio batetik espero du-

gunaren ideal bat daukagu. Horren ondorioz, batzuetan, ideal hori betetzea espero dugu. Berdin dio beste pertsonak gure ondoan egoteko baldintzak dituen ala ez. Beti geratzen da bera aldatu dezakegun fantasia. Bikote harremanetako itxaropen mota horiek ez dira oinarritzen benetako ezertan. «Maitasunak dena egin dezake», «Benetan maite banau, aldatzeko ahalegina egingo du», «Denborarekin nik aldatuko dut» dioten esaldiz beteta egon daitezkeen ideietan bakarrik. Sinismen horiei ematen diegun sinesgarritasuna eta horiei zenbat eusten diegun, horrek erabakitzen du nola sentitzen garen.

Baina horrek esan nahi du ez dugula ezer espero behar gure bikotekidearengandik? Errealitatetik urrun. Fun-tsezkoa da zure mugak non dauden jakitea: zuretzat benetan negoziagarriak ez diren gauzak. Eta, aurkitzen dituzunean, beste pertsonari transmititzeko

gai izan behar duzu. Bikotea eratzean, kideek itxaropenak sortzen dituzte etorkizuneko bizimoduari buruz, eta, beraz, eguneroko bizikidetzarako arau berriak ezarri behar dituzte.

Espektatiben amarauna oso zabala izan daiteke. Pentsatu besterik ez dago zenbat aldiz jokutzen dugun besteek espero dutenaren arabera, edo zenbat aldiz gogaitzen garen besteek ez dutelako uste genuen bezala jokatu. Ikusten dugunez, zoritxarra eta itxaropen handiak eskutik joaten dira askotan. Horregatik, «Ez espero ezer inorengandik, itxaron dena zugandik» esaera ospetsua gogoan izatea oso lagungarria da gure egunerokotasunean, batez ere gure harremanetan. Beraz, magia bera gertatu arte itxaron beharrean, hobe da gure egintzen asmoak elikatzea eta haien bila irtetea. •

saioaaginako@gmail.com



Bikotea eratzean, kideek itxaropenak sortzen dituzte, eta arau berriak ezarri behar dituzte.

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Frantzes Estatu ez da aldatu; Euskal Herria, bai

Estatu frantsesak murgiltze ereduaren kontra egin du, bortizki. Hauspoa behar duten hizkuntzak kaltetu ditu Kontseilu Konstituzionalaren erabakiak. Gertatutakoari urratsez urrats jarraituz gero, Estatuak errailetan, barru-barruan, itsatsita duen izaera ukatzailea ageri da. Beste behin ere.

Babesa behar dute gutxitutako hizkuntzek. Frantsesak ez du inolako arriskurik. Eta horregatik, hain zuzen ere, proposatu eta onartu zen Paul Molac diputatu bretoiak bultzatutako legea. “Eskualdeko hizkuntzen ondarea babesteko eta sustatzeko” legea apirilaren 8an onartu zuen Frantziako Asanblea Nazionalak. Senatuak abenduan bozkatu zuen testu bera izanik, legea promulgatu eta berehala indarrean jarri ahal zen. Egun historikotzat jo zuten hizkuntza gutxituen bizi-raupenaren alde lan egiten duten guztiek, eta zehazki euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren alde jardun dutenek ere bai. Aurrea begira jartzeko tenorea markatu zuen.

247 boz izan zituen alde “Molac legeak”, eta soilik 76 kontra. Macron presidentearen taldeko zenbaitek ere taldeko irizpidearen kontra bozkatu eta legearen alde egin zuten. Baina, antza, demokratikoki hain garbia eta nabarmena izan zen alde horren gainetik badaude beste indar batzuk, eta fite eta gogor mugitu ziren.

MUGIMENDU ILUNA

Jean-Michel Blanquer Hezkuntza ministroak hauspotu zuen mugimendua, eta 61 diputatuk helegitea jarri zioten legeari. Ezohiko mugimendu iluna izan zen, hedabideetan agertu diren zenbait detailek azaltzen dutenez. Artikulu jakin bati jarri zioten helegitea, baina errekurtsioak legea osorik behatzea ahalbidetu zion Kontseilu Konstituzionalari, eta hortik etorri da mur-

giltze ereduaren kontrako erasoa. Hamarkada askotako atzerapausoa izan da.

Macron Errepublikako presidentearen jarrera ere zinez adierazgarria izan da. Azken egunotan hitzez, sare sozialen bitartez, hizkuntzen aldeko mezua zabaldu duen arren, bere ekintzek argi bezain garbi azalarazi dute bere benetako gogoia. Legea onartu zenean ez zuen onartutakoa berehala izenpetu; egunak pasatzen utzi, eta horrela, aipatu helegitea aurkezteko tarte zabala eskaini zuen. Kontseiluaren erabakiaren ostean, aldiz, berehala sinatu du legea, berau berrikusteko egon zitezkeen aukerak itxiz.

Euskararentzat, bistan da, egoera gaiztotu egin da, eta hezkuntzaren garapena kaltetuko du gertatutakoak. Kaltea noraino iritsiko ote den eta zer puntutaraino

Kaltea noraino iritsiko ote den eta zer puntutaraino egin ahalko ote zaion aurre ikusteko dago. Nolanahi ere, defentsiban jarri du euskarazko irakaskuntza

egin ahalko ote zaion aurre ikusteko dago. Nolanahi ere, defentsiban jarri du euskarazko irakaskuntza, beste zerbaitek behar zuenean izan erronka.

Frantziako Estatu ez da aldatu, ez horixe; berean segitzen du. Mespretxua irizpide, hertsu eta gotor. Ipar Euskal Herrian, ordea, azken hamarkadan gauzak asko aldatu dira, onerako; eta indar harremana ere oso bestelakoa da. Euskararen eta beste zenbait herri aldarrikapenen alde, bertako gizarte zibilaren, eragile politiko zein sozialen eta erakundeen nahia eta gogoia nabaria da. Gerra deklaraziotzat jo dute Paristik etorritako azkenak, eta hitz horiek, berez, esanahi politiko sakona dute. Herri nortasunaren seinale. •

BOLATOKIEN HIRIA BERRESKURATZEN

Jon Pagola

Donostia bolatokien hiria izan da. Atzera begiratuta, joko horrek tradizioa eta tiradizoa izan du hirian. Arrasto horren segidan, bolatoki bat berregiten ari dira Herrerako auzoan. Donostian bost egongo dira guztira. Ospea izan dute hirian. Eta joko tradizional horrek baditu bere heroi anonimoak.

Historia guztietan bezala, boloenean ere historiaurre bat badago. Eta aitzindariak egon dira. Pedro Lazkano hasiera-hasieratik egon da. Altzan jaio zen 40ko hamarkadaren amaieran, eta iazko martxoan pandemiaren atarian hil zen, alarma egoera ezarri baino egun batzuk lehenago. 71 urte zituen. Astegun zein asteburuak Donostiako bolatokiak zaintzen ematen zituen. Hiru estaliak dira: Añorgakoa, Ategorrietakoa eta Altzakoa. Aieteko bolatokia da aire librean dagoen bakarra eta, beraz, ezin dira bertan txapelketak antolatu. Buruhaustea izaten zituen Lazkanok Aietekoarekin, estalita ez dagoenez zaintza handiagoa behar duelako eta dena ondo atundu ahal izateko denbora behar zuen. «Haurrak jolasean ibiltzen dira lurrarekin eta zuloak egiten dituzte, eta gero lur hori berdindu beharra dago. Estalitakoetan hor geratzen da egiten duzun lana, kanpokoetan ez», esan zuen Lazkanok 2017an «Hirutxuloko Hitzan» eskainitako elkarrizketan. «Bi egunetik behin etortzen naiz; hostoak eta zikinkeria kendu, lurra berdindu, hondar pixka bat bota, bidea egin... nahiko erraz egiten da, eta ez dut inork laguntzea nahi izaten».

2016an Aieteko bolatokia berreskuratu zuten bizilagunek. Manuel Matxain izena jarri zioten, auzoko bizilagun ilustrea eta bolari handia izan zen gizona omentzeko. Historia honen bigarren izen propioa eta aitzindaria da Matxain. Bola jokoa beti aurkitu du bere tokia Aieten. Joaquín Sorolla margolaria maiz ibiltzen zen Euskal Herrian, eta haren aztarnak aurki daitezke kostan, besteak beste, Donostian, Zarautzen eta Bidarten. Halako batean, Donostiara gerturatu zen 1914an eta «Bola jokoa, Gipuzkoa» margolana egin zuen Euskal Herria irudikatzeko New Yorkeko Hispanic Society bilduman. Sorollari bururatu zitzaion



Donostiako Trinitate plazan jokaturako bolo txapelketa, 1934. urtean.
Pascual MARIN | KUTXA FOTOTEKA

Aieten ikusi zuen jolasa margotzeko ideia. Bere ohiko maisutasun xumeaz baliatuz, oihalera eraman zuen eszena. Bolatokian zenbait baserritar bildu dira ikuskizuna jarraitzeko. «Baietz». «Ezetz». Apustuen liturgian murgildu dira. Jokalariak besoa luzatu du, bola gogor jaurtitzeko prest. Gazte bat petrilerara igo da, jolkaldia hurbiletik ikusteko eta ziurrenik inork tranparik egingo ez duela ziurtatzeko. Hormatxo berean eserita dagoen neska gazteak arreta galaz dio eta burua joan egin zaio. Maiteminduta dauka mutila. Dirudienez, Katxola baserriaren inguruan daude denak eta paisaia berdean landa gailentzen da.

AIETETIK HERRERARA BITARTE

Lantxabe Aieteko auzo elkartearen ordezkaria da Felix Perez. Biak ezagutu zituen, Matxain eta Lazkano. Manuel


Matxainen biografia poliedrikoa errezeitatzeko gai da. «Plazagizona zen. Heroi txiki bat, jatorra eta atsegina», deskribatu du. Garai hartan, 30eko hamarkadan, Aieteko auzoan artean ez zituzten eraiki urbanizazio dotoreak. Hirigunetik minutu gutxira, mendixkan, baserriak zeuden. Matxain iraupen luzeko lasterkaria zen eta hasieran toka jokoarengatik egin zen famatua. «Pieza batek toka jotzen duenean kontatzen da tantoa, eta partida bakoitzean 36 pieza botatzen ziren. Matxainek 32 aldiz jotzen zion burdinazko txapari eta nazioartean ospe handia lortu zuen, Japonian, esate baterako. Garaiezina zen. Izugarria!». Perezek dio kartzelan ikasi zuela boloetara jokatzeko, Espainiako Gerra Zibilean Errepublikaren alde borroka egin ondoren preso egon baitzen. «Oso ondo jokatzeko zuen», laburbildu du.

Aieteko bolatokian belar luzeak dira egun nagusi. Pandemiak eztanda egin zuenetik, ezin dute boloetara jokatu. Bolatokia bizirik dago oraindik, egoera kaxkarrean, baina bizirik. Bolatokiari begira jarrita, Perezi Pedro Lazkano etortzen zaio burura, gure artean egongo balitz bezala. «Harroharro eremua txukuntzen ikusiko genuen», dio.

Gipuzkoako bolo eta toka federazioaren buru izan zen Lazkano. Irudi instituzionala baino askoz gehiago zen hura. «Boloen funtsezko figura izan da. Arkitekto nagusia izan da. Boloen arima zen nonahi, Gipuzkoako bolatoki guztiekin zuen harremana, bolatokiak bizirik egotea ahalbidetzen zuen. Tiraldiak antolatzen zituen. Haren semea, Xabier, oinordeko duina da».

Herreran egin zioten omenaldia Lazkanori. Ekialdeko Barrutiko Batzarren ekimenari esker, Herrerak bolatokia izango du berriz ere. Arrobi txulo parkean egongo da kokatuta eta obrak martxoan hasi eta uztailaren 1ean prest egotea aurreikusten da. Duela hamarkada bat desagertu zen Herrerako bolatokia eta urtetan zehar hainbat bizilagun zein elkartek eskatu izan dute auzoarentzat bolatoki berri bat irekitzea. Ekialdeko Barrutiko 2019ko aurrekontuetan jaso zen proposamena eta Donostiako Udalak urte amaieran onartu zuen iaz. Bolatoki berria estalia izango da eta publikoarentzat espazioa izango du. Horrez gain, toka, botea eta petankara jokatzeko guneak izango ditu, helduentzako ohiko jolasgune bilakatze-ko asmoarekin.

Gaurko eguna euritsu datorrela iragarri dute, baina, momentuz, ostarteak daude. Jolasgunean, proiektuan murgilduta dauden enpresa eta instituzio ezberdinek (Donostiako Udala, Construcciones Echaide eta Kitto Aparejadoreak enpresa) bilera informala dute.



Joaquin Sorolla margolariaren «Bola jokoa, Gipuzkoa» izeneko lana. 1914an egin zuen Aieteko bolatokian inspiratuta.
JOAQUIN SOROLLA

Juan Antonio San Sebastian da 465 orriko txostenaren egileetako bat. «Gune guztiak elkartu behar izan ditugu eta konplexutasun handiko lana eskatzen du», laburbildu du arkitektoak. Proiektuaren aurrekontua 164.122 eurokoa da. Aurrera doa dena, uste bezain ondo ari dira lan egiten. Bolatokiak kirol materiala jasotzeko etxola izango duela azaldu du Sebastianek eta keinu batekin seinalatzen du non kokatuko duten. Karpari buruz galdera bota du. «Noiz iritsiko da? Gaur goizean?». Echaide enpresako Xabier Gonzalez obraburuak erantzun dio: «Laster etorriko direla esan didate». Dirudienez, estalkia jarri behar duten langileak Zaragozatik datoz eta atzeratu egin da zertxobait bisita hori. Mikel Arteaga Donostia Kiroleko arkitektoak esan du Zerain eta Altzaiko bolatokiak izan direla Herrerakoa egiteko «inspirazio iturriak». «Bolatokiaren inguruan sortutako zantzak argitzeko hainbat irizpide eman dizkigu Gipuzkoako Bolo Federazioak», azaldu du Arteagak. Bizilagunekin elkarlanean aritu dira eta giroa lasaia da. Eraikinak oin angeluzuzena du, hormigoi armatua da nagusi eta guztira 28,30 metroko luzera du eta 2,30 metroko zabalera. Karpa iritsi bitartean, petankara jokatzeko gunean egurrezko taulak ari dira jartzen obrako bi langileak. Arduradunen atentzioa deitu dute eta elkarren artean solasean hasi dira. «Zer tamaina hartuko du eskailerak? 1,20 metro

Pedro Lazkanok eta Manuel Matxainek ahalegin handia egin zuten boloen jokoa bizirik mantentzeko Donostian eta Gipuzkoan. 30eko hamarkadan, baserriak nagusi ziren Aiete auzoan, boloen zaletasun handia zegoen

Sorolla margolaria maiz ibiltzen zen Euskal Herrian. Halako batean, Donostiara gerturatu zen 1914an eta «Bola jokoa, Gipuzkoa» margolana egin zuen Euskal Herria irudikatzeko New Yorkeko Hispanic Society bilduman

baino gehiago?». «Bai, pistaren zabalera osoa hartuko du». «Bale. Eta zenbat eskailera maila egokituko dira? Hiru? Lau?».

HERRIKO PLAZA DONOSTIAN

2015eko ekainean arkitekturako, kulturako eta gizarteko hainbat eragilek bat egin eta Peña Gantxegi Artxiboak sustatutako Trinitate Plazaren Alde izeneko manifestua sinatu zuten. Haien esanetan, Triniak «azken bi hamarkadetan jasan dituen zoritxarreko interbentzioei oraintsu aurkeztu den frontoia estaltzeko lehiaketa gehitu behar zaie». Eztabaida handia piztuzen estalkiaren aldekoen eta aurka-koen artean, eta Parte Zaharreko bizilagunek gune estali duin bat aldarrikatzen zuten.

Unai Fernandez de Betoñok honela laburbildu zuen GAUR8n Trinitate plazaren bueltako *affaire* urbanistikoa: «Eskaera sozialak estetikarekin egin du topo». Juan Karlos Izagirre-ren Gobernuak –EH Bildukoa–, onartu zuen ideia lehiaketa baterako deialdia egitea, pilotaleku horretan estalki bat jartzeko asko jota 1 milioi euroko kostuarekin. Guztira, zazpi arkitekto talde aurkeztu ziren proiektu horretara. Urtebete geroago, Tokiko Gobernu Batzarrak (EAJk eta PSEk osatua) erabaki zuen esleipen prozedurarekin jarraitzeari uko egitea «interes publikoagatik». Estalki bat jartzearen aurka zeudenek gogorarazi zuten Trinitate plazak jada ez duela jatorrizko bolatokia, pilotarientzako aldagela bihurtua.

Herrerako Arrobitxulo parkean bolatoki estalia eraikitzen ari dira. Publikoarentzako tokia izango du eta baita tokan, botean eta petankan jokatzeko gunea ere. Uztail hasieran inauguratzea espero da.
Andoni CANELLADA | FOKU

Mario Sangalli irakaslea da Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan eta doktoretza 2013an egin zuen, “Luis Peña Ganchegui: Arkitektoa leku gisa” tesiarekin. Berak ziurtatu du bolatokiak «protagonismo berezia» izan zuela 1963an euskal arkitekto nabarmenak Parte Zaharrean egin zuen funtsezko lan horretan. «Hiri hondakin hura plaza bihurtzeko erabakia alde aurretik zeuden bi elementu egoteak eragin zuen, bi joko tradizional egitea ahalbidetzen zutenak: frontoi bat, 1931n eraikia, eta Peña Gantxegik haren altuera nabarmen murriztu zuen oinplanoaren neurriari egokitzeko, plazaren espazio sentsazioa handitzeko eta Santa Maria elizaren ikuspegia gehitzeko; eta bolatoki bat, hasiera batean frontoiaren paraleloan inprobisa-





Pedro Lazkano Aieteko bolatokian
boloak jaurtitzen eta jasotzen.
Donostiako bolatokien zaindari fina
izan da. Iaz hil zen, pandemiaren
atarian, 71 urte zituela.
LANTXABE AIETEO AUZO ELKARTEA

tzen zena eta, 1956tik aurrera, *ad hoc* eraikin bat izan zuena. Bi elementu horiei probalekua gehitu zitzairen, herri kirolak egiteko funtsezko elementua». Bolatoki estaliaren lekuan kokatu zuten probalekua; beraz, lekuz aldatu behar izan zuten eta mendi mazela batean jarri zuten. Bolatokia babesteko, «harmailen ordez estalki lau bat jarri zuten», gogoratu du Sanga llik, plazaren gainean begiratokia izango zena. Euskal Herriko jolas tradizionalak bermatu nahi zituzten Trinitate plazan, non Gipuzkoako lurraldearen izaeretako bati eman nahi zieten lehentasuna. «Herriko plaza moduko bat zen», azpimarratu du Donostiako Mario Sangalli arkitektoak.

90eko hamarkadan Trinitateko plaza gainbeheran joan zela esan daiteke, eta espazio ilun eta segurtasunik gabeko gune izan zen. Azkenean, bolatokia itxi eta aldagela bihurtu zuten. «Triniaren degradazio arkitektonikoa 1993an hasi zen, eraiki eta hiru



hamarkadatar, harrizko zoladuraren ordez jarraitua dagokion hormigoizko zorua ezarriz, lehen probalekuak okupatutako espazioan, kanasta eta porteriekin, kirol pista bat jartzeko. 1998an jarraitu zuen gainbeherak hesia instalatzen, jendearen sarbide libre mugatuz», adierazi du Mario Sangallik. Eta gaur arte horrela izan dela dio gaineratu du.

Herrerara bueltan, azkenean, Arrobitxuloko parkean kolore txuriko

karpa luze eta sendoa jarri dute. Uste baino geroago gerturatu dira Aragoiko enpresakoak. Txukun dago guztia. Felix Perezek esaten du boloetara jotzen erakutsi behar zaiela umeei, tradizioa galdu ez dadin. Futbola jaun eta jabe den herrian, heroi anonimoz beteriko jendartean bizi gara. Haien artean, Manuel Matxain eta Pedro Lazkano aipatuenak izan dira bolatokiak berreskuratzen ari diren hirian.

Donostiako Trinitate plazan proiektu garrantzitsua egin zuen Peña Gantxegik 1963an eta bi ardatz nagusitan oinarritu zuen bere egitasmoa: lehendik zegoen frontoia eta bolatokia

Trinitate plaza «herriko plaza moduko bat zen», herri kirolak oinarri zituen. 90eko hamarkadaz geroztik, ordea, gainbehera nabaria izan da eta nortasun berezi hori galdu du eremuan egin diren esku-hartzeen ondorioz



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:





Gorka RUBIO | FOKU



IKUSMIRA

ERRUGABEA

Iberdrolak elektrolizagailu planta Euskal Herrian ez jartzea erabaki izana ez da Lakuako Gobernuaren errua, eta ez dut uste inork halakorik dioenik. Iberdrolaren errua ere ez, sailburuaren arabera, haren bazkide Cumminsena baizik, baita pixka bat Espainiako Gobernuarena ere. Aldi berean, Lakuako Gobernuak nolabait iragarri ez bezala Corrugadosek Azpeitiko lantegia ez irekitzea erabaki izana ez da Lakuako Gobernuaren errua, eta inork ez du halakorik esan. EH Bilduko «aberats berriena» da; zehatzago, Azpeitiko alkatearena. Iaz, hauteskundeak egin, mugak zabaldu eta tabernak ia neurririk gabe jarduten utzi ondoren, ospitaleak lepo bete izana ez zen Lakuako Gobernuaren errua izan. Hainbat lagun ZIUetan hilzorian egotea kopa bat hartzera joan ziren herritarrena izan zen. Sasoi onenetan bezala hainbat gazte eta langile jipoitu izana ezin izan borradunen errua, are gutxiago jendea egurtzera bidali dituenarena, kolpeak hartu dituztenena baizik, eta larderia hori guztia salatu duenarena. Erruduna da, eta delitugilea. Ez dakit ondo zer ote den gorroto delitua; edonola ere, larriagoa iruditzen zait etengabe gorrotoa ereitea. Horrek, ordea, ez die lo ordurik ezta minuturik ere galarazten.

Xabier Izaga Gonzalez



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Seriezale bat ulertzeko gida azkarra

Gehien gorrotatzen dugun esaldia

Galdera asko egiten dizkigute, gehienak zentzugabeak, baina guztien gainetik gehien mespretxatzen eta gorrotatzen duguna hauxe da: «Nondik ateratzen duzu denbora hainbeste telesail ikusteko?». Ez dugu erantzun ere egiten. Bizitza oro har eta egunerokoa konkretuki, lehentasunen arabera eraikitzen dugu, eta telesailak ikustea eraiki dugun piramide horren gailurrean aurkitzen da, besterik ez.

Nahiago dugu telesail txar bat jatorrizko hizkuntzan, on bat bikoiztua baino

Hala da, bai, zinema, jatorrizko hizkuntzan beti. Telesailak beste modu batean ikustea –bikoiztuak– ez da gure planen barruan sartzen, guretzat existitu ere egiten ez den hitz bat da, urtikaria ateratzen zaigu «bikoiztua» hitza entzuten dugun bakoitzean.

Demagun menderatzen dugun hizkuntza batean telesail bat estreinatzen dela –adibidez euskaraz–. Nola gustatuko litzaizuke ikustea? Menderatzen dugun hizkuntza horretan ala bikoiztua? Ziur nago %100ek jatorrizko hizkuntza aukeratuko luketela. Eta, zergatik galdetuko banizue, emango zenituzketen argudioak: «Ez dut jatorrizko hizkuntza hori menderatzen», horretarako sortu zen azpitulazioa. Bikoizketarekin, hots banda guztia aldatu behar da (musika, ahotsak, zaratak...). Azpituluekin aldiz, lerro idatzien bidez adierazten da aktoreak dioena, eta lan originala-

Konfinamenduan apur bat gehiago ulertu gintuzuen arren, uste dut telesailak irensten ditugunon eta ikusten ez dituztenen artean, badela tentsio uneak sortzen dituen marra ikusezin bat. Seriezale amorratuoi atal bat bestearen jarraian ikusteko egun osoa etxetik atera gabe egotea normala iruditzen zaigu adibidez, baina zuei ordea ez. Kondairak dio seriezaleak eta pertsona arruntak bizi litezkeela elkarrekin, eztabaidatu gabe eta armonian, gutxi baina badirela zenbait kasu munduan.

Gure zaletasun kontrolaezin hau jasan behar duzuenon tokian jartzen saiatuko naiz, eta bide batez, ea gai zareten zuek ere gure bitxikeriak ulertzeko. Ziur nago terapia erabilgarri bihurtuko dela. Bide batez, elkarte bat sor dezakezue: «Kaixo, nire izena Gexan da eta ni ere seriezale batekin bizi naiz».



rekiko errespetua erabatekoa da. Ahalik eta osoen adierazten dute esaten den guztia, ahalik eta xehetasun gehienak kontuan hartuz. «Ni ez noa zinemara irakurtzera», «Hitzei begiratzat gero, ezin ditut irudiak ikusi». Hementxe azaleratzen da benetakako «arazoa»: alferkeria. Onar ezazue, telesailak bikoiztuta ikustearen egoskorkeria horren arrazoi nagusia, nagitasun intelektua-

la da, pasibotasunaren gaixotasunak eragindako beste ondorio bat.

Asteko egunik okerrrena, guretzat onena. «Azkenean iritsi da astelehena»

Egia da plataforma berrien etorrerarekin, asteko zita hori amaitu egingo dela eta jada ez ditugula telesailak egun konkretuetan soilik irensten, bai-

na bai, aukera asko dago lerroburuko astakeria hori seriezale baten ahotik entzuteko: Azkenean iritsi da astelehena. «Jende arruntari» erokeria iruditutako arren, guretzat, astelehena egun polita izan liteke. Zergatik? Argibidea oso erraza da: AEBetako hainbat telebista katek arrakasta handien duten telesailak igandeetan igortzen dituztela. Hori dela eta, astelehenetik aurrera dauzkagu

ikusgai hemen («Game of Thrones» zegoenean adibidez, edo orain Kate Winslet-en «Mare of Easttown» bikaina ematen dutenean). Astelehena, ustekabeko egun zoragarri hori!

Bizitza soziala. Zer da hori?

Telesailak ikusten inbertitzen den denbora, beste edozeri eskaintzen ez zaion denbora da. Momentuz, lan egitea beharrezkoa da guztiontzat. Bestalde, badaude zeregin saihetsezin batzuk, lo egitea adibidez. Beraz, denbora hori beste nonbaitetik «lapurtu» behar da: bizitza sozialetik. Zuk, pertsona arrunt horrek, esango duzu: «Eguraldi bikaina dugu, joango al gara lagunekin pasatzera edo garagardo batzuk hartzera?». Gure erantzuna: «‘Fleabag’ ikusten ari naiz eta une honetan apaizarekin gertatzen ari dena sinestezina iruditzen zait, benetan uste al duzu gogoa dudala kalerara irteteko?».

Arrisku kirol gustukoena: spoilerak saihestea

Sareak spoilerrez gainezka dauden garai hauetan, hauek saihestea izaten da gehien errepikatzen dugun jarduna. Nekeza eta zaila, baina beharrezkoa, gauean etxera iritsi eta telebista pizten dugun uneen kutsatu gabeko ikustaldi gozo bat bizitzeko.

«Beste atal bat eta banao lotara»

Zenbat aldiz entzungo zenuen esaldi hau goizeko 2.00etan? Berdin dio hurrengo goizean 8.00etan esnatu behar izatea. Gupidagabeak gara. «Stranger

Things"-en maratoi baten erdian baldin bagaude, ea nor ausartzen den esaten telebis- tak hor jarraituko duela hurrengo egunean eta uzten dugun puntutik jarrai dezakegula. Atalak ikusi eta ikusi arituko gara atsedetik gabe, munduaren amaiera iris- tear egongo balitz bezala. Eta apokalipsia iritsi baino lehen, behar dugun bakarra atala nola amaituko den jakitea da. Soluzioa? Onartu, oherako bidea bakarrik hartu beharko duzue. Edo bestela esna eutsi leher egin arte, eta hurrengo egunean begi zuloen kontrako krema erabili.

Datozen asteetako zure soinu banda


Telesail konkretu batek sekula- ko soinu banda duela irudi- tzen bazaigu ("Peaky Blinders", "Big Little Lies", "The Leftovers"...) prestatu zaitez, dato- zen asteetako bidaia, ekitaldi eta afari guztietako musika hori izango baita. Spotify-k ez- tanda egingo du, Max Richter, Nick Cave edo Michael Kiwa- nukaren abestien erruz eta munduan ez da beste musika- rik existituko.

Elkarrekin ikusten duzuen telesail baten atala bakarrik ikustea desleialtzat hartuko da

"The Handmaid's Tale" edota "Hondar ahoak" elkarrekin ikusten baduzue, atal bat zure kabuz ikusteak hondamendira eramango zaitu, eztabaida erraldoi eta kontrolaezin bate- ra. Ezta bururatu ere! Elkarre- kin ikusten duzuen telesail ho- ri erritmo berean ikusi behar duzue eta inoiz -nahigabe ba- da ere-, atal bat aurreratu ba- zara, hobe duzu aitortzea, lu- zera begira oso larria izan liteke eta!

Kamiseta arruntik ez, mesedez

Konturatuko zinen soinean eramaten ditugun kamiseta



guztiekin gure telesail gustu- koenen irudi, mezu edo per- tsonaiak izaten dituztela. Ez dugu ulertzen zergatik era- maten dituzun marrazkirik gabeko elastiko arrunt ziz- trin horiek!

Lagunak telesailen arabera sailkatzen ditugu

"The Leftovers"-en amaiera ulertu zuten lagunak alde ba- tean, "Lost" gorrotatzen duten ezagunak -«lagunak» deitu behar nien baina ez dute me- rezi- bazterrean, eta zure go- mendioei kasu egiten diete- nak bestean. Gure garunean sailkapen desberdinak egi- ten ditugu eta norbait go- mendio eske datorren unean badakigu zein erantzun eman pertsona konkretu horri; au- rretik zer telesail ikusi dituen jakinez gero, noski. Horrez gain, elkarriketa motak ere desberdinak izaten dira mul- to horien barruan kokatuak dauden pertsonekin elkartzen garen bakoitzean.

Jarrai ezazu (gutxienez) ikusten dugun telesail bat, elkarriketatik kanpo geratu nahi ez baduzu behintzat

Lagunekin zaudenean, elka- rriketa telesail baten gaine- koa bada eta kasualitatez ja- rraitzen ez baldin baduzu, estralurtar sentituko zara. «Ikusi al duzu 'True Detecti- ve'-ren plano zoragarri ho- ri?». «Ezin dut sinistu ere egin 'Breaking bad' nola amaitu den...». «'The Victim' telesaileko azken sekuentzia hori latza da...». Elkarriketa hauen guztien parte sentitu nahi baduzu, egin dezakezun gauzarik onena gutxienez te- lesail horietako bat jarraitzea da. Bestela zertaz hitz egin zenuen mundu guztiak "Ga- me Of Thrones"-en amaiera aipatzen zuen bitartean edo "Lost" era bidegabean kritika- tu zutenean?

**Arantxa Urbe**

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Bizitza helburu duten konpetentziak eta balioak

Zure ustez nola bizi behar duzun, hala bizitzea da mundu honetan egoteko modu zentzudun bakarra.

Bizitza ez daukat zirrararik eragiten ez didaten gauzetan lan egiteko. Bizitza ez daukat maite ez ditudan gauzak egiteko. Bizitza hau benetan bizi behar duzu, bestela ez zara bizi. Punto».

Bizitzaren gainean egindako gogoe-ta gordina David Beriain Artaxoako (Nafarroa) kazetari eta dokumental-gilearena da. Joan den hilean Burkina Fasoko oihanean erail zuten zirrarara eragiten zion eta maite zuen horretan ari zela, lanean.

Natural atera ziren hitzak nafarra-ren ahotik, bizitzaren ertzak ongi eza-gutu dituenak soilik esan ditzakeen naturaltasunez. Zuzen-zuzenean iritsi zait mezua bihotzera, eta nire baitan galdera bat hasi da oihartzun egiten: nola begiratzen ote diogu bizitzari he-ziguneetatik?

Kazetariaren arrastoari jarraituz aurkitu nuen Artaxoako Urraka Erre-gina eskola publikoko Lehen Hez-kuntzako ikasleek egin zioten elka-rrizketa, eskaini zuen azkena. Herrikide zituen 6 urteko neska-mu-tilek lau galdera luzatu zizkioten; baita berak zintzotasunez eta maisu-ki erantzun ere. Haurrek ulertuko zu-ten hizkuntzan aritu zitzairen beldu-rraz, gerraz, goseaz, kazetaritzaz, eta erantzun haien bidez benetako bizi-tzaz, munduan egoteko era batez, hitz egin zien apaingarririk gabe. Helduoi sarri hain zailak eta desero-soak egiten zaizkigun eta gehienetan saihestu edo topiko batez erantzuten ditugun galderak.

Beriainen erantzunetan, bat-bate-an, hitzetik hortzera darabiltzagan oinarrizko konpetentziak hauteman

nituen: “Norbera izaten ikasi”, “Ikas-ten eta pentsatzen ikasi”, “Elkarrekin bizitzen ikasi”, “Komunikatzen ikasi”, “Egiten eta ekiten ikasi”. Eta ohartu nintzen haren hitz eta pentsamen-duetan zeudela denak, bizitzari, bene-tako bizitzari, hertsiki lotuak.

Heziguneak, ustez, konpetentziez, curriculumez, unitate didaktikoz, adi-men emozionalez, elkarbizitzaz, en-patiez, barkamenez, eta abarrez bete zaizkigun garaiotan, barnekotasuna-ren eta humanitatearen hutsuneak oihu egiten duenean, kazetaritzatik iritsi zaigu xuxurla zintzoa.

Liluratzen duen gizatasuna ulertu nahi duela kontatu zien artaxoar txikiei. Eseri nahi duela, entzun eta ulertu nahi zaituela. Jakinik ere, segu-ruenik, ez duela bat egingo zurekin. Hori zen Beriainen helburua, gurea ere beharko luke. «Batek irakurtzen eta idazten ikasten duenean baditu tresnak zer gertatzen den kontatze-

ko». Helburu ederra irakurtzen eta idazten ikasteko, ezta?

Ia batera, hezigunera hurbildu zai-gu A eskari batekin. Bizi esperientzia gogor batetik atera berri da, herrieta-ko sarrerak eraso matxistarik ez du-gula onartzen dioten kartekez bete di-ren sasoian. DBHko ikasleei esan nahi die salaketa telefonora deitzearekin soilik ez daudela salbu, orduan hasi behar duela haien borrokak. Gazteei gauzak benetan nola diren kontatze-ko eskatu digu.

Bizitzari leku batetik edo bestetik aurrez aurre begiratu dioten lagu-nen testigantzek sentiarazi didate zein urrun dugun hezkuntza bizi-tzatik. Eskola bizitzen ikasteko lekua izatea nahi badugu, egunero galdetu beharko genioke geure buruari zer den bizitza guretzat, benetan bizi ote dugun bizitza. Irakaspen ederra eman digute Beriainek eta Ak, konpeten-tziez eta balioez. •



David Beriaini Artaxoan egin zioten omenaldia.

Iñigo URIZ | FOKU

{ koaderno } **Mirari Martiarena Iraola**

Hankarte

2021. urtean zerbait baloratzen baldin bada ekintzailea izatea da. Curriculumean oso dotore geratzen da “Ekintzailea” zarela jartzea eta gizartean oso ongi ikusia dago zure ideiarekin negozioa egitea. Hor kontua hauxe da, nork esaten dizun kris-toren negozioa egin dezakezula ideia horrekin eta arrakasta ziurtatua duzula.

Alemaniko bulego batean, gizon batek komuneko zakarrontzian odoldutako tanpoi bat ikusi du paperean bildurik. Kafe makinara itzuli da, beste bi gizoni kontatu die ikusitakoa eta auskalo zer pasatu zitzaizen burutik, hizketan hasi eta ekintzaile izatea erabaki zuten. Hilekoa dugunontzat konpresa, tanpoi edo kopa aldatu behar dugunetan, eskuak odolarekin zikindu gabe eta nazka eman ez diezagun erabiltzeko eskularruak. Pink Gloves, eskularru arrosak, eskerrak arrosak izatea bururatu zitzaizen, argi gera zedin emakumeontzat zirela.

Horraino irakurrita esan dezakezu «tipo hauek ton-toak dira». Aizue, tontoak, baina ekintzaileak eta zer egin zuten? Alemaniko te-lebistako asmatzaile eta ekintzaileen The Lion Den talent show-ean aurkeztu. Txalo bero bat, bai horixe! Eta beste txalo bat, progra-ma horretan erabakiak har-tzen dituztenei. Horrelako ideia bat ona dela pentsa-tzeagatik eta emisiora era-mateagatik.

Berriro azaldu da hilekoa zerbait zikina bezala, ez-kutatu beharrekoa bezala. Emakume perfektuak ezin duelako bere hankarte odolduta izan. Odolduta, ilee-kin, ezpain lodiekin, klitori handiegiarekin. Hankarte perfektua, bulba perfektua izan behar dugu.

Perfektu izan behar hori buruan nuela, “Existitzen al da bulba perfektua?” izeneko erreportajeari paso eman dio telebista aurkezleak. Horri erantsi dio: «Ti-ra, perfektua ez dakigu, baina ideala bai». Eta hara non azaldu den ginekologia estetikoan espezialista den gizon bat azalpenak ematen. Gizon horren arabe-ra, bulba idealak honako ezaugarri hauek ditu: ezpain

handiek txikienak bildu behar dituzte eta zutik jarri-takoan aluaren irekidura ez da nabaritu behar.

Zorionez, nire bulbari buruzko iritzi txarrik ez dut entzun. Baina sarean arakatzen aritu naiz eta euren bulbaren itxuragatik komentario desatseginen bat ja-so duten emakume askoren testigantzak irakurri di-tut. Askok aipatzen zuten, gizonaek emakumeen hankarte infantilizatua dutela buruan eta horixe es-pero dutela bat ikusteko aukera dutenean: ilerik ga-bea, ezpain txikiekin, arrosa kolorekoak... Horrelako aluak izango dituzte batzuek, baina ez dira gehiengoa. Nonbait, gizon horiek ez dituzte “akatsak” dituzten aluak jaten.

Modu horretan sortzen dizkigute emakumeei kon-plexuak. Gure aluekin, titiekin, gerri bueltarekin edo ipurdiarekin. Imajinatzen al duzue erreportaje hau te-lebistan: Zein da zakil perfektua? Ez dute egingo, gizo-nezkoek zakilaren bueltan sortu duten diskurtsoa ta-mainak ez duela inporta esaten duena delako. Eta

«Existitzen al da bulba perfektua?» bota du telebista aurkezleak. «Tira, perfektua ez dakigu, baina ideala bai» esan eta hor azaldu da ginekologia estetikoan aditua den gizon bat azalpenak ematen

gehiago edo gutxiago, denok onartzen dugu diskurtso hori inoren gizontasuna ez mintzeko.

Baina emakumeon gorputzari buruzko kritikak, erreportajeak eta gorputza aldatzeko produktuak etengabe ikusten ditugu sarean eta komunikabideetan. Zeresanik ez hondartzara joateko egunen atzera kontaketa betean gauden honetan. Ez dago bulba idealik, ez perfekturik. Pertsona aludun beste bulba mota daude. Kontua da ea bakoitzak gurea ezagu-tzen dugun. Eta Twitterreko erabiltzaile bati irakurri nion bezala: bulba ideala gozatzen duena da. Gai-nontzeko guztia, emakumeen gorputzen aurkako biolentzia. •

Euskal eszena ez da Ipar poloa baina, hala ere, beti izan ditu esploratzaile ausartak. Arriskuaren maitaleak eta esplorazioarekiko mendekotasun puntu bat izan dutenak. Eurek egindako urratsengatik hainbat baso, bidezidor eta amildegi ezagutzen ditugu gaur egun. Antzinako eta atzerriko postaletan ikusitako lekuak badira ere, gure hitzekin eta tresnekin gutxitan zapaldu ditugun lekuak dira.

Arima hirukote bizkaitararren biriketan abenturazaleek arnasten duten oxigeno hori aurki dezakegu. Bertan, aitzindari zaharrak eta arakatzaille gazteak sormen talka batean batu dira. 90eko hamarkadan noise pop eta euskal nortasuna bateratzeko malabaristak izan ziren Ama Say-ko ameslariak. Atzerapen pixka batekin munduarekiko baina izugarritzko aurrerapenarekin gure eszenarekiko, disko bikain bi kaleratu zituen Ortue-llako taldeak.

30 urteren bueltan Ama Sayren motor izandako Ibon eta Gontzal Bilbao anaiek utzitako arrastoa belaunaldi berri bat zapaltzen ari da. Paule Bilbaok, Gontzal Bilbaoren 20 urteko alabak, shoegazea, post rocka eta post punka esploratzen ausartzen den gure lehen erreferentzia musikale-tako bat bideratzen du.

2018an hasi zen abentura berria. Paule hasiera batean Buenas Tardes, Comandante izeneko beste talde batean jotzen hasi zen. Hortik abiatuta, lehenengo abestiak konposatzen hasi zen. Nahiz eta helburu finkorik ez izan, abesti gehiago sortu zituen eta bere aitari bateriarekin laguntzeko eskatu zion. Handik gutxira,

Josu Gonzalez sartu zen ba-xuarekin eta power trio formatua hartu zuten.

Arimak, edo Paule Bilbaok, “Biluztasunez jantzita” argitaratu du aurren. Lan berria osatzen duten sei kantetan zehar, shoegazearen malenkonia eta post rockaren espiritu barnerakoia batzen dira gure eszenaren mapan leku berrietarako bideak zabalduz.

“Biluztasunez jantzita” lana zuzenean aurkeztzen hasia da Arima taldea. Joan den astean Berrizko kultur etxean izan zen eta gaur, maiatzaren 29a, Tolosako Bonberenean izango da Abereh taldearekin. Ekainaren 5ean, Jimmy Jazzen, Abereh, Sofa eta Leporarekin batera, jaialdi bikainean. Eta hilaren 12an, Gernikako Astran, ROrakin batera kontzertua eskainiko dute.

Duela 30 urte ezarritako ko-ordenatu musikalak arakatzten dituen saio berria da Arima. Gazteen eta nagusien arteko borroka interesatuak bezain leloak bultzatzen diren egun hauetan, Arimak eta Paule Bilbaok musikaren garbitasunaz baino ez dute hitz egiten.

Arimaren musika, gazteen-tzako musika bezala ikusten duzu?

Galdera zaila dela esan dezaket. Berez, nire erreferentziak 90eko hamarkadakoak dira. Nire adineko jendearekin alderatuta, argi dago ez dugula musika berdina entzuten. Helduekin gehiago lotuko nuke nire musika. Baina, tira, egongo dira ni bezalako musika entzuten duten gazteak, nahiz eta agian ez horrenbeste.

«Entzuten dugun musika izan dugun heziketaren ondorio bat izan daiteke. Agian ez dugu besterik ezagutu. Ez dut uste adin kontu bat denik, baizik eta jaso dugun kulturarekin zerikusia duen zerbait»

Zaharrentzako eta gazteen-tzako musika dago?

Ikuspegi kontu bat dela esango nuke; entzuten duenaren ikuspegiagatik dela uste dut. Entzuten dugun musika izan dugun heziketaren ondorio bat izan daiteke. Agian ez dugu besterik ezagutu. Ez dut uste adin kontu bat denik, baizik eta jaso dugun kulturarekin zerikusia duen zerbait.

Zure etxean entzundako musikarekin.

Bai, noski. Nire kasuan, musika betidanik entzun dut, gurasoek betidanik musika jarri dutelako etxean. Zazpi edo zortzi urte nituenean bereziki gogoratzen dut kotxean nindoala aitarekin eta Nirvana entzuten geundela. Burua astintzen hasi nintzen pentsatzen



Monika DEL VALLE | FOKU

«Basoetako eta loreetako izakiak gara»

nire aita ez zegoela begira. Is-pilutik begiratzen ari zela iku-si nuenean oso urduri jarri nintzen eta mugitzeari utzi nion. Hori da nire oroitzapena. Gainera, gure etxetik beti mu-gitu izan dira musikariak, etxean lokal bat daukagu eta aitak eta bere taldekideek beti entseatu dute bertan. Beraz, beti izan dut oso harreman es-tua musikarekin, etxetik hasi-ta. Eta bertan hasi nintzen kla-sikoak entzuten.

Gazteen musika, komatxo ar-tean jarrita «gazteen musika» hori, entzuten duzu?

Bai, baina agian gehiago hel-duentzako musika.

Zer uste duzu baxu, gitarra eta bateriaz egindako musika bakeroetan ibiltzen diren gi-zonezko nagusientzako musi-ka baino ez dela pentsatzen dutenei buruz?

Izan daitekeela. Aurretik en-tzundako musika bat da. Bada-go orain musika garaikide bat elektronikan-edo oinarritzen dena, baina ez dut uste egokia denik muga zorrotz bat ipin-tzea erdian aukera biak ezber-dintzeko. Nire ustez, gaur egungo musika egiten dute-nak aurrekoaren bilakaera bat dira eta, ondorioz, ez dut uste horrenbesteko ezberdintasu-nak daudenik.

Zure aita, eta zure bateria, Gontzal Bilbao da, Ama Say taldeko bateria. Nola kudea-tzen duzue familia eta taldea izatea?

Orokorrean nahiko ondo, bai-na jakina, batzuetan zaila da nahitaez aita eta alaba garela-ko eta ondorioz erlazio hori dugulako. Distantziak man-tentzen saiatzen gara eta en-tseatzen ari garenean aurretik egon daitezkeen gatazka fami-

liarrak albo batera uzten ditu-gu. Ondorioz, orokorrean, oso gustura gaude.

Nola sartzen da Josu Gonzalez baxu jotzailea aita-alaben ar-teko oreka horretan?

Josu taldera heldu zenean ai-tak eta biok kanta gehienak bateriako oinarri sendo bate-kin osatuta genituen; beraz, oso erraza izan zen Josu gehi-tzea. Harreman aldetik nik us-te dut hiruren artean oso on-do konpontzen garela, ondo ulertzen dugulako elkar eta,

beraz, gustura gaudela esan genezake.

Arima talde bat da edo Arima Paule Bilbao da?

Berez, nire proiektua da. Nire taldekideei ez diet garrantzia kendu nahi oinarriaren parte direlako, baina konposizioa, letrak eta lan hori guztia nik egiten dut. Orokorrean entse-gu lokalera kanta oso osatuta eramaten ditut. Bertan, hiru-ren artean bateriak eta baxu li-neia bat sartzen dugu, baina normalean melodia aldetik

nik lokalera kanta bukatuta eramaten dut.

Instrumentu guztiak graba-tzeko gai zinateke?

Musikan bateriarekin hasi nintzen. Aitak erakutsi zidan. Baina ondoren gitarrarekin hasi nintzen eta gehiago gus-tatu zitzaidan. Guztia graba-tzeko gai izango ote nintzen? Maketa bat grabatzeko baietz uste dut. Etorkizunari begira beste talde batean bateria jo-tzea ez dut baztertzen.

Zergatik daude musika mun-duan gero eta izen eta abizen gehiago? Bakarlari gehiago daude eta talde gutxiago?

Taldean jotzeak sozializatze bat ekartzen du. Baita taldean lan egiteko beharra ere. Beste pertsonekin izandako harre-manetatik gauza positiboak eta negatiboak jasotzen ditu-zu. Baina gero eta indibidua-listagoak garela uste dut. Ba-karrik lan egiten baduzu arazo gutxiago dituzu eta erabakiak hartzeko ardura guztiz zurea da. Bakartiagoa da, bai, baina errazagoa. Era berean, taldetik jasotzen dituzun gauza asko galtzen dituzu.

Ama Sayren diskoak ezagu-tzen dituzu? Zer da bertatik gehien gustatzen zaizuna? Arimarentzako eragin bat izan dira?

Euskaraz abestea eta euskara-ren eta ingelesaren arteko na-hasketa hori asko gustatzen zait. Ez dakit iraultzaileak izan zirela esateko ematen duen, baina nahasketa hori oso inte-resgarria iruditzen zait. Hori, jorratzen zuten musika estilo-arekin batera, bere garaian oso berritzailea izan zen. Agian ez da zuzenean eragin bat nire-tzako, baina azkenean nire era-ginak nik aitagandik jaso di-

tut. Orain kontran gertatzen da, orain nik nire eraginak be-rari pasatzen dizkiot.

Erreferentziak aipatuko zeni-tuzke?

Nirvana, Pixies, PJ Harvey eta Sonic Youth etxean jaso ditu-danen artean. Eta nik nire ka-buz aurkitutakoen artean, ga-rrantzitsuenak: Slowdive, My Bloody Valentine, Mogway, Ex-plosions In The Sky... horiek guztiak.

Egun hauetan «Biluztasu-nez jantzita» zure bigarren lana mundura zabaldu du-zu. Zer ezberdintasun ikus-ten dituzu «Metamorpho-sis» lehenengo diskoarekin alderatuta?

Lehenengo diskoa argitaratu nuenean, diskoa guztiz boro-bila ez zela iruditu zitzaidan. Oraindik lana falta zela. Bada-kit sortzailearen gaixotasun antzeko bat ematen duela, baina bai, lehenengo diskoan gauzak falta zirela sentitu nuen. Alde horretatik, biga-rren disko hau osatuago dago, gauza gehiago ditu, baina aldi berean, behar dituen gauzak dira. Nik uste dut eboluzio bat dagoela eta disko helduagoa dela. Bai letretan eta bai soi-nuaren aldetik.

Estudiora guztia bukatuta eroan zenuen?

Disko hau konfinamenduan idazten hasi nintzen. Lokalean sartu eta abestiak idazten hasi nintzen. Udan taldearekin lan egin genuen kanta borobil-tzeko. Estudiora heldu ginene-rako ukitu gutxi batzuk baino ez ziren falta. Nahiko borobil-duta joan zen. Hala ere, estu-dioan Txapekin egon ginen, berak beti sartzen ditu bere ñabardurak eta nabaritu egi-ten da azkenengo emaitzan.

Izkander Fernandez

Konfinamendua sormen artistikoa lantzeko une egokia izan zen?

Konfinamendua pertsonalki emozioen errusiar mendi bat izan zen. Hasiera batean ondo hartu nuen, baina aurrera joan zen heinean, ezjakintasuna gailendu zen eta egoera txarrago batera igaro nintzen. Agian horregatik, ihes egiteko beharra nuelako, deskonektatzeko eta barrukoa azaleratzeko beharra nuelako, arratsaldero lokalean sartu eta konposatzen hasten nintzen.

Berriro Txapekin eta berriro Bonberenean.

Bonberenean etxean bezala gaude. Bi disko eta biak beraiekin grabatu ditugu. Oso erlazio ona dugu. Astebete egon ginen bertan grabatzen, goiz eta arratsalde. Eta batzuetan baita gauz ere. Esperientzia polita, intentsitate askorekin bizi izan genuena, baita urduritasun puntu batekin ere. Azkenerrako ni oso nekatuta nengoen eta azkenengo egunean, ahotsak grabatu behar nitue-nean, amaitzeko behar handia sentitzen nuen.

Ziklo bat. Ideiak, konposatzea, entseatzea, grabatzea eta zuzenean aritzea. Zein da gehien gustatzen zaizuna, eta gutxien?

Gehien, konposatzeko momentu hori. Ideia batetik hasten zarenean eta oso ona dela sentitzen duzunean. Oso momentu berezia da. Jotzea ere izugarri gustatzen zait. Eta gutxien, izapideak. Bulego lana. Orokorrean, antolaketa eremu hori.

Sei kanta. Neurri kurioa. Ez da disko bat, ez da EP bat. Zerk erakartzen zaitu neurri horretatik?



Monika DEL VALLE | FOKU

10 edo 12 abestiko disko luze bat argitaratzea inoiz ez dugu pentsatu. Niri abesti gutxiago argitaratzea gustatzen zait baina hori bai, denbora tarte laburragoetan edo tantaka. Bereziki sei izatea ez neukan pentsatuta; hasiera batean bost kanta nituen eta azkenengo momentuan seigarren bat gehitu nion zenbakia boro-biltzeko. Azkenean hamabi hazbeteko binilo batean geratu da.

Nondik datoz zure hitzak idazteko eraginak?

Anari erreferentzia iturri bat da. Martzel Mariskal ere bai. Haren “Azken zakatzak” poesia liburua izugarri gustatzen zait eta inspirazio bat da. Eta agian Nudozurdoren hitzak ere erreferentzia bat dira niretzako.

Eleberriak edo zinema ere bai?

Eleberria bai. Irakurtzen du-dan edozein liburu eragin

bihurtu daiteke. Zinema ez horrenbeste. Edo agian ikusten dudana ez dut nire hitzetan horrenbeste islatzen.

Naturatik? Diseinuetan, bide-oklipetan basoa, itsasoa, agertzen dira askotan. Nahi-ta?

Bai. Bilatua da. Irudi eta disei-nuak harremana dute eta basoan zentratzen dira. Nik esa-ten dudana moduan, basoetako eta loreetako izakiak gara. Ku-

tsu malenkoniatsua dute, bai-na baita erlazioa ere naturare-kin, gure sustraiak naturan daudelako eta basoak nolabai-teko kutsu misteriotsua duela-ko. Basoa asko gustatzen zait eta basoak gure musikarekin harreman estua dauka.

Naturak ezkortasunetik ate-ratzen gaitu?

Natura nahiko neutroa dela esango nuke. Norberak ema-ten dio esanahia. Orokorrean naturarekin bakean sentitzen naiz eta horregatik dauka gure musikan horrenbesteko ga-rrantzia.

Hitz guztiak zureak dira bat izan ezik; «Ametsen noranz-ko errealistie».

Alex Uriarte izeneko Gernika-ko idazle baten olerkia da. Ale-xek egun baten Gernikako As-tran egiten duen “Piztu da Piztia” izeneko irratsaio batera gonbidatu ninduen. Saio guz-tien amaieran, Alexek berak idatzitako poema musikatu bat erreztatzen du eta gonbi-datuari eskaintzen dio. Ni joan nintzen eguneko olerkia pila bat gustatu zitzaidan eta ho-rrela azaldu nion berari. Ho-rrez geroztik lagunak egin gi-nen eta horregatik, bere poema aukeratu nuen diskoa bukatzeko.

Sara Sozaya, beharrezkoa eta nonahikoa, zure diskoan ere agertzen da.

Egia. “Pentsamenduen bikti-mak” abestian. Bere lana asko miresten dut eta lagunak iza-teaz aparte, egiten duen guztia pila bat gustatzen zait. Berare-kin komentatu nuen eta baie-tza eman zidan. Oso gustura egon gara batera grabatzen eta emaitza oso polita dela uste dut. Bi ahotsen konbinazioa oso ondo geratu da.

Itzaina eta idiak

Antton Izagirre

Euskal sindikatu nagusi bateko buruzagiari entzun nion esaten beste sindikatuekin elkarlana hautsi izanaren arrazoia azken horien borondaterik eza zela. Haiek jarritako erritmoa eta borrokarako ekimena besteek ez zutela onartzen aditzeak zer pentsa eman zidan.

Antzeko ezinegona sortu zidan ikustek nola Langileen Mundu Eguna aldarrikatzeko ekimenetan, bere burua gazte antolakunde langiletzat duenak, koherentzia teorikoaren izenean, sindikatuak antolaturiko praktika aldarrikatzaileari uko egiten zion, berariaz berea sortuz. Eta etorri zait gogora, parabola modura,

itzaina eta idien jokabidearen irudia. Nola itzaina idien aurretik jarri eta aurrera egiten duen distantzia bat hartu arte eta handik atzera begira jarrita bere nagusitasuna aldarrikatu nahian bezala, idiei –jaida!– bere parera etor daitezen dei egiten dien. Baina idiek beren pausajea dutenez, itzaina da, azken batean, atzerako pausoak eman eta bueltan idien parean jarri behar izaten duena, elkarrekin batera aurrera egin dezaten.

Goiko adibideetan adierazitako jokarak ikusita, zalantza sortzen zait ekimenen helburua interes kolektiboari dago-kion ala erakundeen ustezko nagusitasun irudia gizentzen jarraitzeko

ekimen partikular eta partidistak diren. Itzainak eta idiek elkar harturik goldatu dezakete soroa. Itzainaren ustezko protagonismoak norbaiten “egoa” puzteko balio lezake, baina balio eskasa erantsiko lioke ekimen kolektiboari.

Ikusitakoak ikusita, horrelako jokamoldeak behar baino gehiago gailentzen ari direlakoan nago. Indibidualismo eta nagusikeria gehiegi, kolektiboak beharko luketen ekimen sozialetan.

Bitartean, begi bistan ditugun praktikak bide horretatik badoaz, arrisku handia dago gure gizartean, lagun batek esango lukeen bezala: «Munduari su eman eta Parisera alde egiteko». •

Aukera eta aukeraondokoak

Miren Azkarate
Badiola

Eusko Jaurlearitzak Aukera erakunde sortu du presoen eta jendar-tearen arteko zubi lana egiteko, formazioa eta enplegua ardatz izango dituelarik. Oso hitz politikak entzun eta irakurri ahal izan ditugu egunotan Beatriz Artolazabalen ahotan, «presoei bigarren aukera bat eman behar zaie» eta horrelakoak esan ditu Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak.

Oso hitz politikak, ezin ukatu, baina susmoa dut emakume honek ez duela sekula espetxe bat zapaldu eta ez duela sekula preso dagoen edo egon den norbaitekin hitz egin. Hau da, errealtatea zein den

urrutitik ere ez duela usaintzen. Preso daudenetako askok egunerokoan espetxean bizirautekoa lortzeko jada nahikoa lan dituzte. Askok dakite “birgizarteratze” hitzak zer esan nahi duen gehiengoarentzat: barrura itzuliko direla edo/eta beren bizi kalitatea ez dela hobetuko. Orain arte Espainiako Gobernuak izan du ardura hori, ikasteko aukerak, tailerrak... eskainiz. Emaizta ikusi da zein den. Ez dute funtsean dagoen arazoa konpontzen, hau da, espetxeek ez dutela bigarren aukerarik ematen, ez dutela ezertarako balio ez bada gizarteak ezkutatu nahi dituenak leku itxi batean sartzeko, eta pertsonak are

gehiago deuseztatu besterik ez dituela egiten.

Orain Jaurlearitzak beste *txiringito* hau sortu du, jakin nahiko nuke benetan zer helbururekin. Barkatuko didazue, baina niri beste Gogora bat iradokitzen dit. Jonan Fernandez buru jartzea besterik ez zaie falta.

Lehenik eta behin presoei galdetu eta entzun zeintzuk diren haien beharrak eta, bigarrenik, goazen behingoz espetxeak ez diren beste alternatiba batzuez hitz egitera. Aukera ezberdinak daude eta “Aukera” honek zuloak hormigoiz betetzea besterik ez dakar, PNV *style*. •

TEILA FABRIKA

Balio eraldatzaileak dituzten proiektuak elkarlanean konektatzeko espazioa

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Teila sinbologia handiko elementua da euskal kulturaren; babesa, etxea eta abaroa adierazten du». Hori izan nahi du Donostiako Egia auzoko Teila Fabrikak, «pertsonei eta proiektuei bultzada emateko».

Proiektuen lantegi kooperatibo hori 2019ko ekainean zabaldu zuten Egiaiko teila fabrika egon zen lekua parean. Elkarlanean ekiteko eta konektatzeko espazio horretan hainbat jarduera egin dituzte, komunitatea sortu eta jarrera eraldatzailea eta elkarlana sustatzea helburu dutela. Askotariko erabileratako aretoak ditu Teila Fabrikak, eta bere programazioaz gainera, lan egiteko, biltzeko, aurkezpenak eta prentsaurrekoak egiteko, tailerrak, ikastaroak, kultur emanaldiak eta bestelako jarduerak antolatzeke guneak eta baliabideak eskaintzen ditu. Ekintzaile, elkarte, enpresa txiki zein kooperatiben artean komunitatea osatuz, ekonomia soziala jomuga duten egitasmoak bultzatzen ditu.

BALIO ERALDATZAILEAK

Komunitatea eta elkarlana, auzoarekiko lotura, ekonomiaren balio soziala eta eraldaketa, euskara, kultura, saretzea... balio horiek gidatuta garatzen ari dira egitasmoa. Maddalen Serrasek, Aitziber Lizarribar eta Sergio Lezkanok kudeatzen dute proiektu elkargune hori. Euren asmoa zen, eta da, herri mugimenduetako nahiz bestelako eragile sozialei, beren proiektuak gara ditzaten, Teila Fabrika eskaintzea, eta espazio horretan lan egitera joaten den jendeak, lan espazioaz gainera, komunitate bat topatzea. «Horren

Elkarlana, ekonomia soziala eta eraldaketa, euskara eta kultura, saretzea... Balio horiek lantzen dituen komunitatea sortu eta babesteko espazioa da Teila Fabrika. Duela bi urte sortu zen Donostiako Egia auzoan eta, pandemia gorabehera, bidean aurrera doa, espero baina motelago, normala denez, baina nahi duen ororentzat ateak eta besoak zabalik.



inguruko lanketa egiten hasi ginen pandemia baino lehen, bilerak egiten, proiektuari begirako ekarpenak... Gero, pandemia dela-eta, gauza batzuk bertan behera gelditu dira eta oro har zailtasun gehiagori aurre egin behar izan diegu», azaldu du Maddalen Serrasek. Pandemiak eragin handia izan du beraien ibilbide laburrean, «harri handia izan da»; hala ere, bidea egiten ari dira eta beren lan le- rro nagusiak garatzen joan dira.

LAN LERROAK

Proiektuaren lehen ardatza, beraz, bertara jotzen duen jendearekin komunitatea sortzea da, lankidetzan jardunez. Balio eraldatzaileetan garatzen diren proiektuak sustatzea dute apustu nagusia, horientzako espazio bat izatea.

Bertan dauden proiektuen artean konexioa sustatu eta baliatzen saiatzen dira, denen ezagutzak komunitatearen eskura jarritz, batek komuniteari zer eskain diezaiokeen eta komunitateagandik zer jaso nahiko lukeen pentsatuta. Izan ere, Teila Fabrikaren zerbitzuak eta baliabide fisikoak –esaterako, ikus-entzunezko ekipoa- ez ezik, elkarlanean jarduten dutenenak ere erabil daitezke-ela dio Serrasek: «Egitasmoen arteko konexioak sortuta, truke ekonomikoa ere gerta daiteke; esate baterako, webgune bat sortu behar duenak horretaz dakienari laguntza eska diezaioke, eta beste momentu batean hark ere beste laguntza mota bat eska diezaioke beste ari truke moduan. Sinergiak sortzen dira, eta denen arteko elkarlaneko trukeak».

Bigarren lan lerroa, ekonomia soziala eta eraldaketa dira. Hartarako, kanpoko zenbait proiekturekin bat egin dute, hala nola Saretuz Donostiako

Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen Sarearekin edo Olatukoop Euskal Herriko ekonomia sozial eraldatzailearen sarearekin. «Egia da oraindik lan asko daukagula egiteko bide horretan, eta asko ikasteko, baina hau ikasteko modu bat da, eta proiektuak elkarrekin aurrera eramateko modu bat». Ezagutzarekin eta elkarlanarekin batera, proiektu berriak sortzeko aukera ere partekatzea lortu nahi dute.

Agenda kulturala da hirugarren lan lerroa. Hainbat proiekturen berri emateko ez ezik, horiek lantzeko aukera ere eskaintzen dute. Alde batetik, beren programa propioa daukate, eta ekimen kulturalak antolatzen dituzte; bestetik, hitzaldiak, tailerrak edo liburuak nahiz bestelako lanak aurkezteko aukera eskaintzen dute, betiere balio eraldatzaileen inguruan sortu eta garatzen diren kultur arloko proiektuek ere leku bat izan dezaten.

Azken hilabeteetan bi ekimen egin dituzte. Horietako bat, “Ez da entzuten!” musika zikloa, Teila Fabrikak eta hainbat emakume musikariek antolatuta, zenbait kolaborazioen bidez eta Musika Bulegoak lagunduta. Hiru jardunaldi egin dituzte ziklo horren barruan; haietako azkena, Euskal Herriko Emakume* Musikarien Topaketa.

Euskarak leku berezia du Teila Fabrikan; izan ere, antolatzen dituzten ekimenak oro har euskaraz izaten dira. Eta hizkuntzarekin lotuta, halaber, pertsona migratuengan begirada jarri nahiko luketela dio Serrasek, Egia aniztasun kultural handiko auzoa dela kontuan izanda, «gero eta gehiago, edozein herri edo hiri bezala».

Espazioari dagokionez, *co-working* edo elkarlanerako gu-
neak 18 lan mahai ditu eta ere-



Aurreko orrialdean, Teila Fabrikaren logoa duten txartelak eta Buztin Gorri aretoa. Lerroon gainean, Tximini elkarlan gunea. ARRI Studioa

mu partekatua da, bakarka egin beharrean lana ere partekatzeko modukoa. Hiru bulegoak proiektuak garatzeko erabiltzen dira. Labea bilera gela bai teilakideek, bai kanpoko jendeak erabil dezakete, eta erabilera anitzeko bi aretoak ere bertakoek nahiz kanpokoek erabiltzeko dira.

ESPASIO IREKIA

Auzoari lotuta sortu zen Teila Fabrika. Egiako kale berean 1903tik 1932ra bitartean teilak egiten zituen fabrikaren izena hartu dute, eta haren tximinia dute logoa. Auzoko eragile bat

gehiago izan nahi dute, baita auzoarentzako baliabidea ere. Horrek ez du esan nahi, ordea, bertako jarduna auzo horretara mugatuta dagoela, nahi duen ororentzako espazio irekia baita. «Edozein pertsona joan daiteke eta leku batzuk erabiltzearen truke ordaindu egin behar bada ere, beste espazio batzuei etekina ateratzea doakoa da. Adibidez, norbaitek agenda kulturalaren barruan ekimen doako eta irekia antolatu nahi badu, espazioa utzi egiten diogu. Eta enpresa baten barne bilera bat bada, alokatu egiten dugu», azaldu du teilakideak.

Komunitatea eta elkarlana, auzoarekiko lotura, ekonomiaren balio soziala eta eraldaketa, euskara, kultura, saretzea... balio horiek gidatuta garatzen ari dira egitasmoa

Auzoko eragile bat gehiago eta auzoarentzako baliabidea izan nahi dute, baina bertako jarduna ez dago auzo horretara mugatuta, nahi duen ororentzako espazio irekia baita

Teila Fabrikan hainbat neurri hartu zituzten covid-19aren aurrean «segurtasun neurri guztiak betez eta guztion osasuna lehenetsiz» eta, pandemia gorabehera, «garapen bat ikusten ari gara, beharbada ez guk nahi bezain azkarra, baina positiboa, kontuan edukita azken urte pasean zer errealitate egon den». Eta espazioari bizia ematen jarraitu dute. «Gure beldurretako bat zen erabilia izateko sortutako espazio hau itxiz gero, zer gertatuko zen. Egia da aretoan gehixeago mugitu direla, baina oraindik proiektu gehiagoren bila gabiltza». Beste alde batetik, auzo bilera asko izan dituzte, atarietan aforoa oso txikia baita, eta horretarako eta beste jarduera batzuk egiteko, aretoan ez dago segurtasun neurriak gordetzeko arazorik.

Aurrera doaz eta jendea animatu eta segitzeko gogoia transmititu nahi dute bi urte betetzear dauden honetan. Jendearekin sor daitekeen elkarlanari ekiteko beso zabalik.



Alberto Valles, txirrindula gainean. Oskar MATXIN | FOKU

infraganti «DIAVOLO» SOLIDARIOA

Depresioa diagnostikatu ziotenean alboratuta zeukan bizikleta hartu zuen, kirola egiteko gomendioari jarraituz. Ez zuen imajinatzen, baina, desafio solidarioetan indar fisikoak muturreraino eramateko gai izango zenik. Alberto Valles «Euskal Herriko 'diavoloa'» da, lagundu ahal izateagatik pribilegiatua sentitzen den muskiztarra.

Alberto Vallesek 52 urte ditu eta sasoi onean dagoela bistakoa bada ere zorabioa eragiten du agendan daukan erronken segidak. Ez da

kirol marka ugariren pilaketa hutsa: bizikleta gainean dagoenean munduak beste distira bat hartzen du muskiztarrarentzat, erronkaren atzean helburu solidario bat badago.

Uztailean, esaterako, «Una entre cien mil» haurren leuze-

miaren aurkako elkarte baten aldeko laguntza biltzeko, txirrinduan 24 ordu egin zituen.

Everesting challenge bat zen. Euskal Herritik irten gabe egin zuen, bai, baina 8.848 metroko aldea berdin-berdin osatu behar izan zuen. Zelan lortzen duen? Entrenatzaile baten ondoan, diziplina eta ahalegin handiarekin, eta beti ez da erraza izaten, depresio gogor bati aurre egin behar baitio.

Claudio Chiappucci idolo eta lagun duen txirrindularia, pasaden urtarrilean, laugarren postuan geratu zen arrabola gaine-ko nazioarteko erlojupean. Pedalei 24 orduz eraginez 609,16 kilometro egin zituen. Orduan, Aspanovas elkartearen alde izan zen.

Vallesek burututako egitandi bi dira, baina gehiago dago. Berarekin kontaktuan jarri eta beste desafio baten prestaketan buru-belarri sartuta aurkitu du GAUR8k. Aiaran izango da, eta bi kirolariren erronkak biltzen ditu. Alberto Vallesek Guinness errekorra gainditu behar du bizikletan *non stop* modalitatean: zazpi egun jarraian bizikleta gainean. Ondoan beste kirolari bat izango du, Alber Fernandez *SpiderAbel*.

Aiarako erronka gaindituta, beste proiektu batzuk ditu buruan. Zerk mugiarazten ditu hanka sendo horiek pedalen gainean? Kirolarekiko zaletasun handiak eta askotan egoera animikoa berpizten duen ahalegin fisikoaren eta laguntzeko gogoaren uztarketak.

«Garrantzitsuena ez da zer egiten duzun, baizik eta zertarako egiten duzun», nabarmendu du muskiztarrak.

Indarrak mugaraino eramateko gaitasuna ez du erabat berria. Gaztetatik lotura izan du kirolarekin, baina orain erritmo biziagoa hartu du, eta

2018tik sufritzen duen buruko gaixotasunarekin lotuta dago.

«Ezgaituta nago, depresio diagnostiko errepikari bat daukat eta gaixotasunari aurre egiteko kirola egitea ona zela esan zidaten. Bizikletan ibilia nintzen, baina lanarekin utzita neukan», azaldu dio GAUR8ri.

Medikuaren aholkuari jarraituz, bizikleta hartu eta errepidera itzuli zen. Medikazioa hartu arren, erritmoa handitu eta bere burua gero eta hobeto ikusten hasi zela gaineratu du.

PILOTARI ETA SINDIKALISTA

Bizirik jarraitzen du gaztetako kirolarekiko grinak. Pilotaria izan zen. «Familia pilotaria da nirea. Aitite Somorrostroko Txikito izan zen, 30 urtez profesionala palan. Madrilen, Bartzelonan eta Euskaldunan jokatu zuen, bertan eman zuen Euskaldunan izan zen pilotakadarik handiena, diotenez». Pilotan urte batzuk eman ondoren, lanean hastean frontoia utzi behar izan zuen Vallesek. Bizikletan hasi zen hobby gisa due-la hamaika bat urtera arte.

ELA sindikatuan liberatu ibili zen urteetan, baina ahots kordetan izan zuen gaixotasun batek ardura uztera eraman zuen eta Muskizko Udalean zuen lanpostura itzuli zen.

Itzulera ez zen gozoa izan. «Asko sufritu nuen», aitortzen du Vallesek. Lan harreman gatazkatsu bat aurkitu zuen bueltan, eta horren ondorioz etorri zen depresioa. Auziak epaitegietan jarraitzen duen bitartean, Vallesek beste bide bat zabaldu du aurrera jarraitzeko.

Gaixotasun askoren ikerketarako funtsak bildu dituen muskiztarrak buruko gaixotasunak gainean duen estigma ezabatu nahiko luke. Ondo sentitzen ez dena psikiatrarengana edo psikologoarengana joatera anima-



Aiarako desafihoa egin, eta geroko beste erronka batzuk prestatzen ari da muskiztarra.

Oskar MATXIN | FOKU

tzen du. Deia luzatzeko beharra sentitzen du, bere esperientzian oinarrituta. «Tardatu nuen profesionalen laguntza eskatzen eta gaizki bukatu dut, erlatiboki, gaixotasuna kronifikatu dudalako», azaldu du. Hala ere, gaitz horiekiko begirada aldatu behar dugula uste du: «Ez gara zoroak, gaixotasun bat daukan jende normala gara».

ERRESPETUA BEHAR DUTE

Gaitz fisikoek beste era bateko erantzuna eragiten dute, errazago ikusten dira kanpotik. Dioenez, kostatzen da azaltzea mugitzeko indarrak ere kentzen dituen barruko gaitz hori, baina gaixoei batez ere errespetua behar dutela uste du. Buruko gaixotasunek eragiten dituzten heriotzak aipatu ditu. «Trafiko istripuek baino heriotza gehiago eragiten dituzte gaixotasun hauek, tra-

fikoaren kasuan pauta asko ematen da, baina etxeko bat depresioak jota badago badakigu zelan jokatu behar dugun? Badakigu zelan lagundu?», planteatu du. «Itxura ona duzu, esaten dizute; bai, txapa, baina barrutik ez dakizu nola nagoen», erantsi du, askotan kalean aurkitzen duen ulertezintasunaz. Beraren ustez, garrantzitsua da, gainera, gaixotasuna bat-batean agertzen dela ulertzea. «Sindikalis-

ta eta langile indartsu bat izan naiz, hamaika ekimenetan hartu dut parte... eta askotan ulergaitza da gaixotu gaitezkeela, baina hori ere kontuan hartu behar da, beste eritasun batzuk agertzen diren moduan faktore ezberdinengatik hauek ere ager daitezkeela, ez da jaiotzez duzun gauza bat», dio muskiztarrek.

Ez du ukatzen momentu txarrak bizi izan dituela, baina aldi berean ultrafondoan aritzen

den kirolariak indar fisiko guztiak jar ditzake bizikleta gainean, amore eman gabe, helmugan helburu solidario bat badago. Horregatik nabarmentzen du desafioren atzean elkartasuna izan behar dela, ez garaien pertsonalen zerrenda.

Iaz, hiru *everesting* egin zituen; Muskizen bat, Ezkerraldean izan den lehena; «24 ordu 'non stop'», Sodupen, eta luzeena, «Diavoloaren bidea». Claudio Chiappuccik berak jarri zion *Diavolo* ezizena Vallesi. Harreman estua du txirindulari italiarrarekin. Hortik dator «Diavoloaren bidea», eta horren barruan Muskiztik Tarifara dauden 1.000 kilometroak osatu behar izan zituen erronkan, gelditu gabeko modalitatean. 68 ordutan egin zuen kronometroak gupidarik gabe aurrera jarraitzen duen proba.

«60 ordutik jaistea zen nire helburua, baina azken gauean sei ordu galdu nituen», azaldu du muskiztarrek. «Bildu beharreko dirua zen garrantzitsue- na eta oso ondo joan zen; beraz, benetako erronka beteta zegoen», azpimarratu du. Haurren minbiziarekin lotutako ekimen bat zegoen helmugan, eta muskiztarrentzat zentzu berezia du gaixotasun horrek, etxeko- en artean gogor jo baitu.

Ez ditu erronkak bertan behera utzi, ezta ospitaleratuta egon denean ere. Depresioak izandako beherakada batekin ospitalera itzuli behar izan zuen batean, tratamenduan egin beharreko egokitzapenak egin eta errehabilitazioak iraun bitartean «Mugarik gabeko bizikleten» proposamen bat hel- du zen, Senegaleko eskoletara bizikletak eramateko. «Arrabola gainean, beste mila kilometro», gelditu gabeko modalitatean. Bazkari eta afarien ordutegiak errespetatu behar zituen, baita gaueko ordutegia ere, horietan izan ziren ospitalean jarri zizkieten baldintzak. Oso esperientzia ona izan zela esan digu, bertan jasotako animoak herrian aurkitu dituenak bezalaxe hunkitzen dutela.

Hurrengo erronka ekainaren 10ean du Vallesek. Done Jakue bidea oinarri hartuta Erronkaritik irten eta errekorra egiten saiatuko da, master kategorian. Buelako bidean beste desafio bat du kostaldeko bide- tik. Erronka biak denboraldi indartsu baten hasiera baino ez dira izango, goi mailako forma hartzeko. Abuztuan, *everesting* bikoitza egiteko asmoa du, eta irailean, Italiako Giroa *non stop*, 4.000 kilometro, eta agian Claudio Chiappucci ondoan duela. •

Nerea Goti

Indar fisiko inbidiagarria erakutsi du Vallesek hainbat desafiotan, baina kirol markek ez dute berez maila pertsonalean asetzen; kausa ezberdinetan lagundu ahal izateak bai, ordea

Sindikalgintzan eta hainbat ekimenetan aritua, onartzen du berak ere ez zuela depresioa espero baina erreala den barruko ondoeza errespetatu eta ulertzen saiatzeko deia egiten du



Olatz Arbelaiz Gallego

EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Gladys saria: esparru digitalean erreferente femeninoak sortzen



Ziurrenik zuetako askori arraro egingo zaizue teknologiaz idazteko baliatzen diren lerro hauetan erreferente femeninoak eta Gladys aldi berean aipatzea. Egia da, Gladys del Estal Ferreiro ez zen ezaguna informatikaria zelako, ekintzaile eta ekologista izan zelako baizik. Baina informatikaria ere bazen. Donostiako Informatika Fakultatean ikasi zuen eta 1979. urtean, protesta antinuklear batean Tuteran hil zuten unean, programatzaile informatiko gisa egiten zuen lan. Aitzakia ederra dugu, beraz, helburuetako bat esparru digitalean ari diren emakumeen erreferenteak bultzatzea duen sariak haren izen eta izaera atzean eduki ditzan. Laster izango da haren heriotzaren 42. urteurrena eta balio bezate lerro hauek, besteak beste, hura gogoratzeko.

Badira urte asko hizkuntzalaritza konputazionalen eta informazio bilaketan aditua zen Karen Sparkek esan zuela Informatika garrantzitsuegia dela gizonen bakarrik uzteko. Gu horrekin konturatuta gaude eta emakumeek ingurune digitalean lanbide, enpresa eta ikasketa munduan duten zeregina funtsezkoa dela uste dugu eta hori aitortu nahiko genuke.

Zoritzarrez, mundu mailako zein gure inguruko zenbakiek argi adierazten dute emakumeek esparru digitalean egiten duten ekarpen hori galtzen ari garela. Oro har esparru digitaleko lanpostuen artean emakumeek betetzen dituztenak %20tik behera daude, eta ardura postuetan asko egiten du behera kopuru horrek. Horregatik, guk ezinbesteko ikusten dugu emakumeen presentzia areagotu eta gizarte digitalaren eraikuntzan berdintasun irizpideekin parte hartzea sustatzen duten ekimenak proposatzea.

Antzeko helburuekin azken urteetan esparru anitzetan ari dira emakumeak ikusarazi eta erreferenteak sortzearen garrantzia azpimarratzen. Ezaguna da adibidez mundu mailan, Matilda J. Gage, emakumeen eskubideen alde lan egin zuen Ipar Ameriketako aktibistaren omenez aurrera eramaten den #NoMoreMatildas ekimena; historiak atzeko planoan kokatu zituen emakume zientzialariak ikusaraztea eta neskato gehiagok ikasketa zientifikoak egin ditzaten helburu duena.

Bide horretatik, esparru teknologiko eta digitalean ere, azken urteetan ezagutu ditugu historian zehar informatika gaur egun ezagutzen dugun modukoa izan dadin ekarpen handia egin duten hainbat emakume. Horien artean ezin ahaztu Ada Lovelace, matematikari, "informatikari" eta idazle


britainiarra, historiako lehen programatzaile kontsideratzen dena; Grace Hopper, goi mailako lehen programazio lengoaia sortu zuen emakumea; Grace Murray, lehenengo konpiladorearen sortzaile; Hedy Lamarr, wifi eta bluetooth bezalako teknologietarako aurrekariak asmatu zituen; Lynn Conway, txip-en diseinuan eragin handia izan duten ekarpenak egin zituen; Evelyn Berezin, fisikari, informatikari eta enpresaria, testu prozesatzaileen ama gisa ezagutu genuena eta bulegoko lehenengo ordenagailua sortu zuena; Mary Allen Wilkes, lehenengo ordenagailu pertsonalaren diseinuan parte hartu zuena eta horrelako tresna bat etxean eta telelanerako erabili zuen lehenengo pertsona; Angela Ruiz Robles, irakasle, idazle eta asmatzailea, liburu elektronikoaren aurrekariak jarri zituen; Jude Milhon, duela urte asko Interneten norberaren eskubideak defendatu zituen hackerra; Stephanie Shirley, programazioko enpresa bat sortu zuen lehen emakumea edo Margaret Hamilton, eguraldia iragartzeko softwarea garatu zuena.

Erreferente horiek guztiak ezagutzea ezinbestekoa da eta eredu izan daitezke STEM diziplinetara bideratu ala ez zalanbata egiten duten neska gazte eta nerabeentzat. Baina sinetsita gaude gertuko erreferenteak ezagutu eta haien lana zabaltzeak eragin positiboago eta biderkatzaileagoa izango duela, errazagoa izango baita gure gaztetxoak haiekin identifikatzea.

Eta gure artean? Ba ote daude esparru digitalean ekarpena egiten ari diren emakume gazteak edo etorkizun oparoa dutenak? Nik ezagutzen ditut hainbat, eta ziur zuk ere ezagutzen dituzula edo agian, zu zara horietako bat. Garrantzitsua da emakume horiek ere jendartearen ezagun izan daitezkeen eta aurretik zerrendatutako horiekin batera gure zerrendara batu ditzagun. Beraz, ez galdu aukera Gladys sarira aurkeztu eta zure ekarpena egiteko (gladyssaria.eus). •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA

ATEGORRIETAKO SARRASKIA, 1931N

1931ko maiatzaren 27ko egunkariak Pasaiaiko arrantzaleen grebaren eta 26ko goizaldean grebalari batzuk atxilotu izanaren berri eman zuten. 27an, arrantzaleen eskubideak aldarrikatu eta atxilotuen askatasuna eskatzeko, manifestazio bat abiatu zen Pasaiatik Donostiarantz. Ategorrieta parean, Guardia Zibilak geldiarazi eta tiro egin zien manifestariei. Sei langile hil eta 30etik gora zauritu ziren. Balaz zauritutako beste manifestari bat ere hil egin zen egun batzuk geroago. Guardia Zibilaren balek hil zituzten zazpi langileak Antonio Barro, Jose Carnes, Jesus Camposoto, Manuel Lopez, Jose Novo, Manuel Perez eta Julian Zurro izan ziren. Biharamunean, prentsak jakinarazi zuen 27an goiz-goizetik Donostia Armadak hartuta zegoela, Sizilia erregimentuko indarrak hainbat leku estrategikotan, grebalarien aldeko manifestazioak erreprimitzeko. Halaber, manifestazioaren, Guardia Zibilak egindako tiroen eta hildakoen berri eman zuen, eta kontatu zuen nola Ategorrietan zer gertatu zen jakin ondoren manifestari talde batzuek Garibai kalean Hernaniko tranbia irauli zuten eta Donostiako saltokiak itxi zituzten, protesta gisa. "El Día" egunkariak artikulua hau ilustratzen duen argazki bera argitaratu zuen azalean, beste batzuekin eta gerra egoeraren deklarazioarekin batera. Irudien egilea Ricardo Martin izan zen, Donostiako Photo Carte argazki estudioko zuzendaria. Goian, Hernaniko tranbia ageri da, Garibai kalean iraulita.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



Midi-Pyrenees Okzitaniako talaia

Historiaz eta tragediaz bustitako Okzitania departamenduko Pirinioetan barna egin dugun bi-
daian, xarmaz beteriko herri, ibai eta gailurren liluraren menpe erori gara. Zatozte ikustera.

Eta gainera: Gerra Zibileko Nafarroako frontea • Little Bighorn, erresistentzia indigenaren
bidea • Sudango Dinder parke nazionala • Srinagar edo Kaxmirreko perla...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

